GURA MARKETIN.
MARKETING & COMUNICACIÓN

Zarauzko Udala
Behin betiko Onespena / Aprobación definitva
Data / Fecha 2025 OTS 27
Organoa / Órgano: Udalbatzarra / Pleno
Idazkaritza / Secretaría

ZARAUTZ TURISMOA

ZARAUZKO TURISMOAREN PLAN ESTRATEGIKOA (2025-2028)



ESKU009d9fbf-1fea-4957-8320-89cbd6fdb05d

Zarauzko Udala
Behin betiko Onespena / Aprobación definitva
Data / Fecha 2025 OTS 27
Organoa / Órgano: Udalbatzarra / Pleno
Idazkaritza / Secretaría

AURKIBIDEA

SARRERA 4
METODOLOGIA 5
1. EGUNERAKETA 7
1.1 BARNE-ANALISIA 8
1.1.1 PLANEN AZTERKETA 10
- Ondorioak 11
1.1.2 DATUEN AZTERKETA 13
- Ostatuak: 14
- Turismo Bulegoak 15
- Mugikortasuna 17
- Gastua 17
1.1.3 ERABILERA TURISTIKORAKO ETXEBIZITZA PRIBATUEN ESKAINTZA 18
- Ondorioak 19
1.2 KANPO-ANALISIA 20
1.2.1 TURISMO BIRSORTZAILEA 22
1.2.2 TURISMO BIRSORTZAILEA: ONDORIOAK 24
1.3 PARTE-HARTZE PROZESUA 29
1.3.1 LAN-SAIOAK 31
- Turismo Bulegoko langileekin 31
- Murkil eta Zurekin elkarteekin 34
- Udaletxeko teknikariekin 36
- Alderdi politikoekin 39
1.3.2 ONLINE GALDETEGIAK 40
- Herritarrak 40
- Sektorea 41
- Udaletxeko teknikariak 44
1.3.3 HONDARTZAKO INFORMAZIO PUNTUA 46
- Bisitariak 46

ESKU0090d9fbf-1fea-4957-8320-89cbd6fdb05d

Zarauzko Udala
Behin betiko Onespena / Aprobación definitva
Data / Fecha 2025 OTS 27
Organoa / Órgano: Udalbatzarra / Pleno
Idazkaritza / Secretaría

AURKIBIDEA

1.4 AMIA 48
- Indarguneak 49
- Ahuleziak 50
- Aukerak 51
- Mehatxuak 52

2. HAUSNARKETA ESTRATEGIKOA 53
2.1 HELBURU ESTRATEGIKOAK 54
2.2 XEDE-PUBLIKOA 55
2.3 HAUSNARKETA ESTRATEGIKOA 58
2.4 KOKAPENA 60

3. EKINTZA PLANA 61
3.1 VICE EREDUA 62
3.2 VICE ereduaren gakoak 63
3.3 Garapen Jasangarrirako helburuak 64
3.4 EKINTZA PLANA 73
- Zarauztarrak 74
- Industria 79
- Ingurunea eta Kultura 84
- Bisitariak 88

ESKU0090d9fbf-1fea-4957-8320-89cbd6fdb05d

Zarauzko Udala
Behin betiko Onespena / Aprobación definitva
Data / Fecha 2025 OTS 27
Organoa / Órgano: Udalbatzarra / Pleno
Idazkaritza / Secretaría

SARRERA

Proiektu honetan Zarauzko Turismoaren Plan Estrategikoaren (2018-2023) eguneraketa aurkezten da.

Besteak beste, ondorengo atalak eguneratu dira: Zarauzko turismoaren diagnostikoa (estatistikak, eskaintza, produktuak, elkarlanak...) eta apartamentu turistikoen eskaintza. Horiek oinarri hartuta, helburu turistikoak, proiekzioak eta lerro estrategikoak finkatu dira. Bigarren fasean, hausnarketa estrategikoa landu da, eta, azken fasean, proposatutako ekintza-plana zehaztu da.

Plan Estrategikoa *Zarauzko 2030 Agendarekin* eta *Garapen Iraunkorreko Helburuekin* lerrokatzea izan da helburuetako bat.

Plan honetan puntu garrantzitsua izan da Zarauzko komunitatearen eta "turismo sarea" osatzen duten agenteen parte-hartzea bermatzea. Horregatik, hainbat galdetegi eta lan-saio egin dira agente ezberdinekin, zarauztarrak ere kontuan hartuta, jasangarritasunaren 3 ardatz landuz: garapen ekonomikoa, ongizate soziala eta ingurumena.

ESKU0090d9fbf-1fea-4957-8320-89cbd6fdb05d

Zarauzko Udala

Behin betiko Onespena / Aprobación definitva

Data / Fecha: 2025 OTS 27

Organoa / Órgano: Udalbatzarra / Pleno

Idazkaritza / Secretaría

ESKU009d9fbf-1fea-4957-8320-89cbd6fdb05d

METODOLOGIA

Zarauzko Udala
Behin betiko Onespena / Aprobación definitva
Data / Fecha 2025 OTS 27
Organoa / Órgano: Udalbatzarra / Pleno
Idazkaritza / Secretaría

FASEAK

EGUNERAKETA

Barne Analisia → Kanpo Analisia → Parte-hartze Prozesua → AMIA

HAUSNARKETA ESTRATEGIKOA
(Berrikustea eta eguneratzea)

Xede publikoa → Helburu Estrategikoak → Kokapen Turistikoa → VICE Eredua

EKINTZA PLANA

Bisitariak → Komunitatea → Industria → Ingurunea Eta Kultura

ESKU00d9fbf-1fea495-8820-89cbd6fdb05d

Zarauzko Udala

Behin betiko Onespena / Aprobación definitva

Data / Fecha: 2025 OTS 27

Organoa / Órgano: Udalbatzarra / Pleno

Idazkaritza / Secretaría

ESKU009d9fbf-1fea-4957-8320-89cbd6fdb05d

EGUNERAKETA

ZARAUZKO UDALA
Behin betiko Onespena / Aprobación definitva
Data / Fecha 2025 OTS 27
Organoa / Órgano: Udalbatzarra / Pleno
Idazkaritza / Secretaría

ESKU0090d9fbf-1fea-4957-8320-89cbd6fdb05d

1.1. Barne-analisia



Zarauzko Udala
Behin betiko Onespena / Aprobación definitva
Data / Fecha 2025 OTS 27
Organoa / Órgano: Udalbatzarra / Pleno
Idazkaritza / Secretaría

ESKU0090d9fbf-1fea-4957-8320-89cbd6fdb05d

Hurrengo orrialdeetan barne-analisia landuko da ondorengo azpi faseak kontuan hartuta:

- Planen azterketa
- Datuen azterketa
- Erabilera turistikorako etxebizitza/pisu/logela pribatuen eskaintza
- Parte-hartze Prozesua

Zarauzko Udala
Behin betiko Onespena / Aprobación definitva
Data / Fecha 2025 OTS 27
Organoa / Órgano: Udalbatzarra / Pleno
Idazkaritza / Secretaría

1.1.1 Planen azterketa

Zarauzko egungo egoera testuinguruan kokatzeko, interesgarritzat jotzen diren planak aztertuko dira. Identifikatutako planak hauek izan dira:

- ❑ 2022ko Zarautz Turismoko Sare Sozialen txostena
- ❑ 2023ko Zarautz Turismoko Sare Sozialen txostena
- ❑ Zarautz 23-27 Agintaldi Plana
- ❑ Zarauzko Udalean euskararen erabilera normalizatzeko Plan estrategikoa. VII plangintzaldia 2023-2027

Ez da ahaztu behar plan hau eguneratzeko oinarrizko dokumentua: Zarauzko Turismoaren Plan Estrategikoa 2018-2021. Kasu honetan, plana zeharkako erreferentzia izan da dokumentu osoan eta fase guztietan.

ESKU0090d9fbf-1fea-4957-8320-89cbd6fdb05d

Zarauzko Udala
Behin betiko Onespena / Aprobación definitva
Data / Fecha 2025 OTS 27
Organoa / Órgano: Udalbatzarra / Pleno
Idazkaritza / Secretaría

1.1.1 Planen azterketa

ONDORIOAK:

✓ **Sare Sozialak**

- Arlo horretan, etengabeko lan-ildoak hauteman dira, hala nola gastronomia, natura eta merkataritza sustatzea sare sozialen estrategiaren ardatz eragile gisa.
- Helburuetan aldaketa txiki bat antzeman da: 2022an urtarokotasuna da erronka nagusia, eta 2023an iraunkortasun soziala, ekonomikoa eta ingurumenekoa.
- 2023an igoera txikiagoa izan da jarraitzaileei dagokienez, baina sumatzen da sare sozialak modu profesionalean lantzen jarraitzearen aldeko apustua (laguntza teknikoa eta prestakuntza).
- Jarraitzaile zarauztarren gorakadak jarraitzen du, eta gainerako joerek berdin jarraitzen dute.
- Ordaindutako kanpainen, giden, artikuluen eta instagramerren ekintzak urterokoak dira, eta denek ildo berdinak jorratzen dituzte.
- Youtube kanala elikatzen da, helmugaren posizionamendua indartzen duten zerrenda eta kategorien bidez.

ESKU009d9fbf-1fea-4957-8320-89cbd6fdb05d

Zarauzko Udala
Behin betiko Onespena / Aprobación definitva
Data / Fecha 2025 OTS 27
Organoa / Órgano: Udalbatzarra / Pleno
Idazkaritza / Secretaría

1.1.1 Planen azterketa

ONDORIOAK:

✓ **2023-27 Zarautz Agintaldi Plana**

- 2018-2021 Zarauzko turismoaren aurreko Plan Estrategikoa VICE ereduan oinarritzen zen, eta 2023-27 agintaldi planak hainbat kontzeptu eta lan-ildo ditu amankomunean VICE ereduarekin: komunitatearen garrantzia, jasangarritasuna (soziala, ekonomikoa eta ingurumenekoa), mugikortasuna, kulturaren garrantzia eta euskara bereizgarri gisa.
- Garapen Jasangarrirako Helburuak erabili dira dokumentu osoaren lanketan
- Agintaldi plana oinarri hartuta landu da komunitatearen ardatza.
- "Zarauztartasuna" kontzeptuak planaren enfokea markatzen du.

✓ **Zarauzko Udalean euskararen erabilera normalizatzeko Plan Estrategikoa.**

- Euskara da proiektu osoaren oinarria, eta Zarautzen euskararen erabilera eta garrantzia sustatzen jarraitzea da helburu nagusia.
- Plan osoaren zeharkako zati gisa landu behar da euskara, merezi duen garrantzia emanez.
- Plan honetan jasotako kontzeptuak komunitatearen ardatzean azaldu behar dira. Bisitarien ardatzean, berriz, aztertu behar da nola ulertarazi/jakinarazi euskara Zarauzko nortasunaren parte dela.

ESKU009d9fbf-1fea-4957-8320-89cbd6fdb05d

Zarauzko Udala
Behin betiko Onespena / Aprobación definitva
Data / Fecha 2025 OTS 27
Organoa / Órgano: Udalbatzarra / Pleno
Idazkaritza / Secretaría

1.1.2 Datuen azterketa

ESKU0090d9fbf-1fea-4957-8320-89cbd6fdb05d

Gipuzkoako Turismo Behatokiaren helburua da turismo-industria osoari balioa ematea eta behar den informazioa ematea erabakiak hartzeko eta kudeaketa optimizatzeko.
Gainera, Turismo Zuzendaritzak Turismo Helmuga Adimendunen Sarearen (DTI) ekimenetan parte hartzen du, eta informazioaren teknologiak eta sare sozialak erabiltzen ditu turismo adimenduna sustatzeko.

Azpimarratu beharra dago Zarauzko Turismo Departamentuak jasotako datuak oso baliagarriak izan direla analisi sakona egiterakoan.

1.1.2 Datuen azterketa

Zarauzko Udala
Behin betiko Onespena / Aprobación definitva
Data / Fecha 2025 OTS 27
Organoa / Órgano: Udalbatzarra / Pleno
Idazkaritza / Secretaría

ESKU009d9fbf-1fea-4957-8320-89cbd6fdb05d

➢ ONDORIOAK

OSTATUAK

- Zarauzko ostatuek ia 70.000 sarrera erregistratu dituzte 2023an, 2022an baino % 8,6 gehiago. Urteko **hirugarren hiruhilekoan erregistratu dira sarrera gehien**, atzerrian zein estatuan bizi diren pertsonenak.

- Bisitarien jatorriari dagokionez, **Kataluniatik, Frantziatik, Madrildik eta Euskaditik etorritakoak daude lehenengo postuetan**, eta Frantziatik etorritakoen kopurua hazi egin da (+% 22 2022tik).

- Kataluniatik etorritakoen kopuruak ere gora egin du (+% 9). Baina Madrildik (-% 1,8) eta, batez ere, Euskaditik etorritako pertsonen kopuruak behera egin du (-% 5,4).

- 2023an, Zarauzko batez besteko egonaldia 2,03 gaukoa izan zen, 2022an baino % 1,4 gehiago.

- Zarauzko kasuan, plazen betetze-maila nahiko ezberdina da hiruhileko batetik bestera: % 30,6 lehen hiruhilekoan, % 53,1 bigarrenean, % 72 hirugarrenean eta % 39,8 laugarrenean.

Zarauzko Udala
Behin betiko Onespena / Aprobación definitva
Data / Fecha 2025 OTS 27
Organoa / Órgano: Udalbatzarra / Pleno
Idazkaritza / Secretaría

1.1.2 Datuen azterketa

- Okupatutako gela batetik lortutako batez besteko diru-sarrerari dagokionez, **zenbateko handiena hirugarren hiruhilekoan erregistratu zen: 116,63 euro, hau da, % +29,9 2022koarekin alderatuta**. Beste herri batzuekin konparatuta, **Zarautz hirugarren postuan dago, Hondarribia eta Getariaren atzetik.**

- 2023an **44 establezimendu zeuden irekita Zarautzen** (kanpinak eta aterpetxe turistikoak kontuan hartu gabe), eta udalerri nagusia da, Getariaren (25) eta Hondarribiaren (25) aurretik. Beste udalerri batzuekin konparatuta, **Irun eta Zarautz dira plaza gehien eskaintzen dituztenak**. Zarautzek Irunek baino plaza gehiago eskaintzen ditu hirugarren hiruhilekoan.

- Hondarribia, Irun eta Zarautz dira langile gehien dituzten udalerriak.

INFORMAZIO BULEGOAK

- Bi bulegoetan bisitari **gehienak helduak** dira.

- Azpimarratzekoa da **hondartzako bulegoan gazte gehiago** daudela **haurrak baino** (eta bulego nagusian haur gehiago gazteak baino). Eta **oso esanguratsua da Zarauzko bulegoan dagoen erretiratuen kopurua**, ia helduak bezain ugariak baitira.

ESKU009d9fbf-1fea-4957-8320-89cbd6fdb05d

Zarauzko Udala
Behin betiko Onespena / Aprobación definitva
Data / Fecha 2025 OTS 27
Organoa / Órgano: Udalbatzarra / Pleno
Idazkaritza / Secretaría

1.1.2 Datuen azterketa

- Zarauzko turismo bulegotik 2023an pasa diren bisitarien % 36,31 herrikoak dira, % 33,87 estatukoak eta % 20,08 atzerritarrak. Estatutik datozenei dagokienez, % 24 Kataluniatik datoz eta % 23 Madrildik. Eta atzerritik etorritako pertsonei dagokienez, % 38 frantziarrak dira eta % 17 alemaniarrak.

- Hondartzako turismo bulegoan berriz, erdia baino gehiago estatuko bisitariak izan dira, % 52,63 hain zuzen ere. Estatutik datozenei dagokienez, % 21 Kataluniatik datoz eta % 30 Madrildik. Eta atzerritik etorritako pertsonei dagokienez, % 33 frantziarrak dira, % 15 alemaniarrak eta % 12 holandarrak.

- Zarauztarrek ekainean eta abenduan erabiltzen dute gehien Turismo Bulegoa (programazioa/agenda eta udaleko egutegiak)

- Bi bulegoetan bisitarien hiru laurdenek baino gehiagok udalerriari buruzko informazioa eskatu dute.

ESKU009d9fbf-1fea-4957-8320-89cbd6fdb05d

Zarauzko Udala
Behin betiko Onespena / Aprobación definitva
Data / Fecha 2025 OTS 27
Organoa / Órgano: Udalbatzarra / Pleno
Idazkaritza / Secretaría

1.1.2 Datuen azterketa

MUGIKORTASUNA

- Gipuzkoako lurraldean **bisitarien ia % 48 txangozaleak dira**, hau da, ez dute gaua igarotzen, eta Zarautzen ere datua antzekoa izan daitekeela ondoriozta dezakegu.

- **Horietatik, % 53 Estatuan bizi diren pertsonak dira** (Euskadi barne).

- Txangozale horien jatorriari dagokionez, atzerritarren artean, **Frantziatik etorritakoak nabarmentzen dira**, eta Estatuko pertsonen artean, **Nafarroatik, Bizkaitik eta Arabatik etorritakoak.**

GASTUA

- Urola Kostan egiten da gastu handiena aisia eta kulturan, ostatu turistikoetan eta sukaldaritzan, Bidasoaren eta Donostiaren atzetik.

- Guztizko gasturik handiena Kataluniatik eta Madrildik etorritakoek egiten dute, baina batezbesteko gasturik handiena Gaztela-Mantxatik eta Aragoitik etorritakoek.

- Estatuko bisitarien artean, **nabarmentzekoa da Madrilgo kasua, gastu osoa eta batezbesteko gastua handiak baitira.** Atzerriko bisitarien artean, guztizko gasturik handiena **Alemaniatik eta Frantziatik etorritakoek** egiten dute, baina batezbesteko gasturik handiena Argentinatik eta Estatu Batuetatik etorritakoek.

ESKU009d9fbf-1fea-4957-8320-89cbd6fdb05d

Zarauzko Udala
Behin betiko Onespena / Aprobación definitva
Data / Fecha 2025 OTS 27
Organoa / Órgano: Udalbatzarra / Pleno
Idazkaritza / Secretaría

1.1.3 Erabilera turistikorako etxebizitza pribatuen eskaintz

Atal hau garatzeko, Zarauzko **etxebizitzaren egoerari eta etxebizitzen eta apartamentu turistikoen eraginari buruzko azterlana hartu da erreferentziatzat.**

Azterlan hori 2024an egin zuten Zarauzko Udalak eta IKEI aholkularitza-enpresak. Azterketa horrek erabilera turistikoko etxebizitza pribatuen plaza kopurua aztertzen du, besteak beste.

Alojamendu-tipologia horrek udalerriko hainbat ardatzetan duen eraginagatik (komunitatean, jasangarritasunean, etab.) ikusi da garrantzitsua dela azterketa sakonago bat egitea.

ESKU009d9fbf-1fea-4957-8320-89cbd6fdb05d

Zarauzko Udala
Behin betiko Onespena / Aprobación definitva
Data / Fecha 2025 OTS 27
Organoa / Órgano: Udalbatzarra / Pleno
Idazkaritza / Secretaría

1.1.3 Erabilera turistikorako etxebizitza pribatuen eskaintz

ONDORIOAK:

- 2017an antzeko azterketa bat egin zen, eta erabilera turistikoko 128 etxebizitza pribatu zeuden. Gaur egungo azterketan, 197 identifikatu dira, hau da, **7 urte hauetan % 54 egin du gora alojamendu-tipologia horrek.**

- Erabilera turistikoko etxebizitzak 197 dira, eta 889 plaza dituzte. Etxebizitza horien titulartasunari dagokionez, % 78 partikularrenak dira, eta gainerako % 22 enpresenak.

- Alde Zaharra, Itsasertza eta Iñurritza-San Pelaio dira, hurrenkera horretan, etxebizitza turistiko gehien dituzten hiru eremuak; 197tik 159 horietan daude.

- Azpimarratu behar da garrantzitsua dela txosten horretan ostatu-tipologia hori merkaturatzen duten online plataformen azterketa zehatza egin dela. Kasu honetan, 187 etxebizitza identifikatu dira, guztira 878 plazarekin. **2017an landutakoan 602 plaza kalkulatu ziren; horrekin alderatuz gero, esan daiteke % 46 hazi dela plaza-kopurua.**

- Datu horiek aztertuta, ondorioztatzen da erabilera turistikoko etxebizitza gehienak erregistratuta daudela. Izan ere, 2017an 66 etxebizitza baino ez zeuden erregistratuta, eta eskaintza erreala 128koa zen. Aldiz, IKEIk egindako txostenean ikusi den bezala, 10 etxebizitzako aldea baino ez dago online plataformen eskaintzarekin alderatuta.

ESKU009d9fbf-1fea-4957-8320-89cbd6fdb05d

ZARAUZKO UDALA
Behin betiko Onespena / Aprobación definitva
Data / Fecha
2025 OTS 27
Organoa / Órgano: Udalbatzarra / Pleno
Idazkaritza / Secretaría

ESKU0090d9fbf-1fea-4957-8320-89cbd6fdb05d

1.2. Kanpo-analisia

Zarauzko Udala
Behin betiko Onespena / Aprobación definitva
Data / Fecha 2025 OTS 27
Organoa / Órgano: Udalbatzarra / Pleno
Idazkaritza / Secretaría

ESKU0090d9fbf-1fea-4957-8320-89cbd6fdb05d

Hurrengo orrialdeetan, turismo birsortzailean oinarritutako ekimenei buruzko azterketa landu da. Turismo birsortzailearen segmentua oso ezaguna ez denez, jarraian, zertan datzan eta nola kudeatzen den azalduko da, arrakasta izan duten adibide batzuen bidez.

Aztertu diren arrakasta-kasuak hauek izan dira, gehienak Katalunian:

Reyno de Navarra Nafarroako Erresuma

Aztarna positiboa

Apadrinaunolivo.org

Natura i Saberes Delta Polet

Sastres Paperers

L'Olivera

Parc de la Séquia

viesverdesGIRONA

Zarauzko Udala
Behin betiko Onespena / Aprobación definitva
Data / Fecha 2025 OTS 27
Organoa / Órgano: Udalbatzarra / Pleno
Idazkaritza / Secretaría

1.2.1. Turismo Birsortzailea

- Turismo birsortzaileak izaera integrala dauka, esperientzia turistikoak eskaintzeko modu berri bat da. Bere **helburua helmuga biziberritzea** da, ingurune sozial, kultural, ekonomiko eta naturalaren baldintzak hobetuz.

- Ikuspegi horretatik, osasuna, ongizatea eta ekosistema hobetu nahi dira, eta helmuga turistikoaren potentziala garatu. Pertsona guztien beharrak kontuan hartuta eta ekonomia integrala aprobetxatuz, ekonomia eta ongizate integralari laguntzen zaie. Aldi berean, esperientzia gogoangarriak eskaintzen dira, eta, horien bitartez, erabiltzaileen sentsibilizazioa lortu nahi da.

- Nazio Batuek gida gisa erabil daitekeen turismo birsortzaileko printzipio multzo bat garatu dute: ulermen holistikoa eta sistema bizien ikuspegia; lankidetza eta elkarteak sustatzea; diru-sarreren fluxuak dibertsifikatzea; inklusioa eta ekitatea, tokiko komunitateak txertatuz; esperientzia eraldatzaileak eta inspiratzaileak diseinatzea; eta kultura zaintzea.

ESKU009d9fbf-1fea-4957-8320-89cbd6fdb05d

Zarauzko Udala
Behin betiko Onespena / Aprobación definitva
Data / Fecha 2025 OTS 27
Organoa / Órgano: Udalbatzarra / Pleno
Idazkaritza / Secretaría

1.2.1. Turismo Birsortzailea

Gaur egun, turismo birsortzailearen definizioak bi alderdi ditu: (i) jasangarritasuna bere osotasunean eta (ii) bisitariak egonaldian zehar gizarteari eta komunitateari egin ahal dion ekarpena, helmugaren eta komunitatearen parte izateaz arduratuta.

Turismo birsortzailearen helburua da **jarduera espezifiko bat garatu ondoren helmuga hasieran baino hobeto uzten duen turismo mota bat izatea.** Jardunbide egoki eta jasangarrien bidez, bisitaria inplikatuko da helmugako tokiko komunitatea hobetzen. Turismo birsortzaileak arlo horietan lagunduko luke:

- Ingurumenaren hobekuntzan
- Tokiko komunitatean
- Helmugaren garapen ekonomiko eta sozialean
- Turismo-eredu berrian

ESKU0090d9fbf-1fea-4957-8320-89cbd6fdb05d

Zarauzko Udala
Behin betiko Onespena / Aprobación definitva
Data / Fecha 2025 OTS 27
Organoa / Órgano: Udalbatzarra / Pleno
Idazkaritza / Secretaría

1.2.2. Turismo Birsortzailea: ondorioak

- Azken urteetan, ideia bat indarra hartzen ari da: "*turismoak* ***urrats bat harago*** *joan behar du, eragin negatiboa murrizteaz gain,* ***balio erantsi bat izan*** *behar du bisitatzen den helmuga hobetzeko*".

- Turismo birsortzailea jasangarritasuna baino harago doan urratsa da; turismo jasangarriak ez bezala, inpaktu negatiboak minimizatzea du helburu, turismo birsortzailea **bisitatutako helmugak aktiboki hobetzeko baliagarria** da.

- Birsortze kontzeptuak **bisitaria** bera hartzen du **helmuga eraldatzeko baliabide** gisa.

- Turismo birsortzailea, oro har, helmugako 3 alderdi hobetzen saiatzen da: **ekosistemak berreskuratu** (ingurumena), **ekitate ekonomikoa** (bidezkoa izatea banaketa ekonomikoa) eta **partaidetza komunitarioa** (tokiko pertsonak inplikatzea eta horien bizi-baldintzak hobetzea).

- Gaur egun, **ez dago turismo birsortzailean espezializatutako helmugarik; segmentu horren inguruko esperientziak sortzen ari dira,** gainerako turismo-eskaintzaren osagarri gisa.

ESKU0090d9fbf-1fea-4957-8320-89cbd6fdb05d

Zarauzko Udala
Behin betiko Onespena / Aprobación definitva
Data / Fecha 2025 OTS 27
Organoa / Órgano: Udalbatzarra / Pleno
Idazkaritza / Secretaría

1.2.2. Turismo Birsortzailea: ondorioak

- Turismo birsortzailea inplementatzeko, funtsezkoa da **hainbat eragileren arteko lankidetza sustatzea**, hala nola bisitariena, tokiko komunitateena eta enpresena. Herritarren parte-hartzeak ziurtatzen du kontuan hartuko direla tokiko biztanleriaren perspektibak eta beharrak; eta lankidetza publiko-pribatuak, berriz, eskala handiagoko ekimenak ezartzea errazten du.

- Funtsezkoa **da zeharkako ikuspegia** izatea: gizartea, ekonomia eta ingurumen-alderdiak. Benetako produktu eta esperientzia jasangarriak elkarrekin sortzea funtsezkoa da inplikatutako guztiei mesede egiteko eta turismo-helmugen biziberritzea sustatzeko.

- Produktu eta **esperientzia birsortzaileen sorrerarekin zerikusia duen guztiak dibulgazio-balio handia du**, zergatiaren eta burutzen ari den jardueraren ikuspegitik. Balio dibulgatzaile hori esperientziaren momentua baino harago doa.

- Proiektu horiek ez dituzte bisitariak eta bertakoak bakarrik inplikatzen. **Enpresak, elkarteak, eskolak... inplikatzen dituzte, hau da, helmugako ekosistema osoa.**

ESKU0090d9fbf-1fea-4957-8320-89cbd6fdb05d

Zarauzko Udala
Behin betiko Onespena / Aprobación definitva
Data / Fecha 2025 OTS 27
Organoa / Órgano: Udalbatzarra / Pleno
Idazkaritza / Secretaría

1.2.2. Turismo Birsortzailea: ondorioak

Ikusi ditugun proiektuen antzekotasunak:

- **Ingurumen-jasangarritasunaren ikuspegia**: Proiektu guztiek ikuspegi sendoa dute ingurumen-jasangarritasunean. **Ingurumen-inpaktua minimizatzen** duten eta **tokiko baliabide naturalen kontserbazioa sustatzen** duten praktiketan oinarritzen dira.

- **Tokiko komunitatearekiko lotura**: Proiektu bakoitza modu esanguratsuan integratuta dago tokiko komunitatearekin. Horrenbestez, **komunitateak proiektuaren jardueretan aktiboki parte har dezake, tokiko produktuak sustatu ditzake edo tokiko egoiliarrentzat aukera ekonomikoak sortu ditzake**.

- **Hezkuntza eta kontzientziazioa**: Proiektu askok hezkuntza-osagai garrantzitsua dute. Hori **bisitarientzako hezkuntza-programen** bidez gauzatu daiteke, gai hauek landuz: ingurumen-kontserbazioaren garrantzia, tokiko artisautzari buruzko hezkuntza-tailerrak edo nekazaritza-praktika jasangarrien sustapena.

- **Tokiko baliabide naturalen erabilera**: Proiektuek modu jasangarrian aprobetxatzen dituzte tokiko baliabide naturalak. Adibidez, oliba-olioaren ekoizpena, olibondoen laborantza, deltak eta bide berdeen moduko **eremu naturalen kudeaketa jasangarria**, besteak beste.

- **Berrikuntza eta sormena**: Proiektu bakoitzak berrikuntza- eta sormen-maila bat dauka turismo birsortzaileari dagokionez. Besteak beste, **produktu esklusiboak garatzea** (artisau-papera, adibidez), **eremu degradatuak lehengoratzea** (parke naturalak eta trenbide zaharrak, adibidez) **eta nekazaritza-praktika berritzaile eta iraunkorrak sustatzea**.

- **Eragin positiboa tokiko gurunean**: Proiektu guztien helburua tokiko gurunean eragin positiboa sortzea da, **ekosistemak lehengoratuz, landa-eremuak biziberrituz, tokiko kultura babestuz edo turismo arduratsu eta kontzientea sustatuz**.

ESKU009d9fbf-1fea-4957-8320-89cbd6fdb05d

1.2.2. Turismo Birsortzailea: ondorioak

Zarauzko Udala
Behin betiko Onespena / Aprobación definitva
Data / Fecha 2025 OTS 27
Organoa / Órgano: Udalbatzarra / Pleno
Idazkaritza / Secretaría

ESKU009d9fbf-1fea-4957-8320-89cbd6fdb05d

Turismo birsortzailean lantzen diren esparru nagusienak:

- **Energia berriztagarrien** erabilera
- **Benetakotasunaren eta berrikuntzaren alde** egitea
- Turismoaren **hazkundea mugatzea** baliabide eta erakargarri naturaletan
- Turistek parte har dezaketen **natura-inguruneak garbitzeko eta berreskuratzeko proiektuak** sustatzea: hondartzak, mendiak, ibaiak....
- Biodibertsitatea eta historia kulturala nabarmenduko duten **ibilaldi gidatuak eskaintzea.**
- Galzorian dauden **espezieak eta ekosistemak berreskuratzeko programak** sortzea
- Nekazaritza birsortzailea garatzea: **turistak nekazaritza ekologikoko jardueretan parte hartzea** eta baserrietara bisitak egitea.
- **Bidezko merkataritza** sustatzea
- **Erantzukizun sozial korporatiboko jarduerak** sustatzea
- **Tokiko ekintzaileentzako laguntzak** ematea
- Bertakoek garatutako produktuen eta zerbitzuen kontsumo arduratsua: **km0 produktuak sustatzea** edo produktu ekologiko eta bertakoen merkatua sortzea.
- **Zuhaitzak landatzea** (baso-berritzea).
- Tokiko komunitateari mesede egiten dioten **gizarte-proiektuetarako laguntza ematea**
- **Bisitariek boluntariotzako jardueretan parte hartze**a
- Bertako jendeari **trebetasunen bati buruzko formakuntzak doan** eskaintzea
- **Karbono-aztarna konpentsatzeko ekimenak** eskaintzea
- **Lankidetza-sare bat ezartzea** turismo-enpresen, tokiko elkarteen eta gobernu-erakundeen artean, turismo birsortzaileko ekimenak sustatzeko eta koordinatzeko.

Zarauzko Udala
Behin betiko Onespena / Aprobación definitva
Data / Fecha 2025 OTS 27
Organoa / Órgano: Udalbatzarra / Pleno
Idazkaritza / Secretaría

1.2.2. Turismo Birsortzailea: ondorioak

Laburbilduz:

Aztertu diren adibideen arabera, **turismo birsortzailea behar berezi batzuetatik abiatzen da**:

- Gainbeheran dagoen **leku bat indartzeko**
- Desagertzeko arriskuan dagoen **jarduera bat berreskuratzeko**
- Eskualde baten **ekonomia suspertzeko**

Langabezia-tasa handiko eremuak izaten dira, tokiko ekonomia gainbeheran dute, eta, kasu askotan, despopulazio-arriskuan daude. **Premia larri batetik abiatzen da normalean**, eta jarduera turistikoaren aukera planteatzen da ingurumena eta ekonomia berreskuratzeko.

Zarautzen, abiapuntua desberdina da. Enplegu-tasa handia du, jarduera ekonomikoa badago, ingurumen-eremu ahulak berreskuratzeko ekimen publiko eta pribatu ugari daude, eta ekimen solidarioak ere bai, eremu horiek hobetzeko, berreskuratzeko, babesteko eta laguntzeko.

Turismoaren ikuspegitik, hau da planteamendua:
Bisitariari jarduera eta ekimen horien berri ematea eta parte hartzera gonbidatzea:

- **Ingurumen arlokoak**: biotopoa kontserbatzea, hondartza garbitzea...
- **Sozialak**: salmenta eta bazkari solidarioak, adibidez.
- **Kulturalak**: euskara, folklorea, etab.

ESKU009d9fbf-1fea-4957-8320-89cbd6fdb05d

ZARAUZKO UDALA
Behin betiko Onespena / Aprobación definitva
Data / Fecha 2025 OTS 27
Organoa / Órgano: Udalbatzarra / Pleno
Idazkaritza / Secretaría

ESKU009d9fbf-1fea-4957-8320-89cbd6fdb05d

1.3. Parte-hartze Prozesua

Zarauzko Udala
Behin betiko Onespena / Aprobación definitva
Data / Fecha 2025 OTS 27
Organoa / Órgano: Udalbatzarra / Pleno
Idazkaritza / Secretaría

EGUNERAKETA

Parte-hartze prozesua

Jarraian, plan hau egiteko egin den parte-hartze prozesua aurkezten da. Eragile adierazgarrienak kontuan hartu dira, eta hainbat lan-metodologia gauzatu dira, plana eguneratzeko ahalik eta informazio gehien biltzeko.

1. LAN-SAIOAK

- 2 talde-saio Zarauzko turismo bulegoko langileekin.
- 2 lan-saio: Murkil eta Zurekin elkarteekin.
- Lan-saioa udaleko teknikariekin

2. ONLINE GALDETEGIAK

3 online galdetegi:

- Herritarrak: 31 erantzun online
- Sektorea: 31 erantzun online
- Udaleko gainerako departamentuak: 6 erantzun

3. POSTONTZIAK

- Udalerriko puntu estrategikoetan: 7 erantzun
- Hondartzako informazio puntuan: 95 galdetegi

4. ELKARRIZKETAK

- 5 lan-saio funtsezko departamentuekin
- 4 elkarrizketa alderdi politikoekin

ESKU0090d9fbf-1fea-4957-8320-89cbd6fdb05d

Zarauzko Udala
Behin betiko Onespena / Aprobación definitva
Data / Fecha 2025 OTS 27
Organoa / Órgano: Udalbatzarra / Pleno
Idazkaritza / Secretaría

ESKU009d9fbf-1fea-4957-8320-89cbd6fdb05d

TURISMO BULEGOKO LANGILEEKIN

Zein da Zarautzek sei urte hauetan jasan duen aldaketarik nabarmenena?

- Turismo Bulego berria. Kokapen berria. Arreta zerbitzua Kale Nagusian. **Bisitari eta herritarrentzat eskuragarriago.** Kristalezko sarrera eta bideowall-a. Erakargarria.
- **Etxebizitza / urbanizazio berri gehiago** Zarautzen.
- Herrian zehar **apartamentu turistikoak eta erabilera turistikoko etxebizitzak ugaritu** dira.
- **Mugikortasuna:** bidegorri-sare berria / bi tren-geltoki berritu dira, autobus-geltoki berria egiteko asmoa...
- **Natura Turismoak ("Turismo Berdeak") indarra hartu du:** gure baliabide turistiko nagusiari, hondartzari, "Eraztun Berde Urdina" naturagune-sarea gehitu zaio. Vista Alegre parkea (Torreoia) eta Talaimendi (Mollarri – Iñurritza) naturaguneek indar handia hartu dute.
- **Eskaintza turistikoa:** Zarautz familia-turismoaren merkatuan posizionatu da. Azken urteetako kanpainen eraginagatik eta **hainbat produktu berri sortu** direlako (haurrentzako gida eta planoa, Marco Topo jolasa, Azken Balea gazteentzako web app-a...)
- **Bisitari frantsesen presentzia nabarmendu** da
- **Eskaintza turistikoaren digitalizazioa: sare sozialek** hartu duten indarraz baliatzen da gaur egun informazioa zabaltzeko. Esfortzu berezia egiten da sareetarako eduki egokia egiteko.
- **"Queer Destination" zigilua** ere lortu da, beti zerbitzua hobetzeko helburuarekin egiten da lana..

1.3.1 Lan-saioak

ZARAUZKO UDALA
Behin betiko Onespena / Aprobación definitva
Data / Fecha 2025 OTS 27
Organoa / Órgano: Udalbatzarra / Pleno
Idazkaritza / Secretaría

TURISMO BULEGOKO LANGILEEKIN

Gaur egun zein da udalerriko baliabide turistiko estrategikoena?

- **"Zarauzko hondartza"** urte osoan zabalik. Baliabide eta zerbitzuez osatutako hondartza urbanoa.
- **Eskaintza turistikoa bere osotasunean**. "*Produktu izar*" baten ezean, osotasunari eman behar zaio garrantzia. **Herri laua, erosoa, atsegina, giro handikoa, ostatu, taberna eta jatetxe aukera zabala**, "urte osoan zabalik", **denentzako egokia,** kolektibo guztiak berdin artatuko dituena…
- **Surfaren sektorea**. Zarauzko hondartzak baldintza egokiak ditu maila guztietako erabiltzaileentzat.

Nora doa Zarautz?

- **Herri bezala handitzen ari da**. Baliabideek eta zerbitzuek neurri berean hazi behar dute.
- Bere **baliabide estrategikoa zaindu eta indartu**: Bandera Urdina, kerik gabeko hondartza, txakurren gunea, uraren erabilera – ur kirolen guneak ondo arautu…
- Baliabide estrategikoa **bestelako eskaintzarekin** osatu: **agenda, produktu turistikoak…**
- Azpiegitura garrantzitsu batzuk falta badira ere (erabilera anitzeko eraikin bat edo antzeko zerbait, adibidez), **azpiegitura eta biztanle kopuru aldetik asko ari da handitzen** Zarautz.

ESKU0090d9fbf-1fea-4957-8320-89cbd6fdb05d

Zarauzko Udala
Behin betiko Onespena / Aprobación definitva
Data / Fecha 2025 OTS 27
Organoa / Órgano: Udalbatzarra / Pleno
Idazkaritza / Secretaría

TURISMO BULEGOKO LANGILEEKIN

Beste ekarpen batzuk:

- **Zarautzek erreferente izaten jarraitzen du**, nahiz eta, azken urte hauetan, inguruko beste herri batzuk ere erreferente bihurtu diren produktu erakargarriekin.
- **Zarauzko giroa oso herrikoia da**, ez da bereizten bisitarientzat eta bertakoentzat ezberdinak diren gunerik.
- **"Euskararen Herria" proiektu klabe bezala.**
- Pandemiaz geroztik, **Zarauzko turismo-sarea ahuldu egin da**, lankidetzarik eta proiektu bateraturik gabe.
- **Garraioa indargune berezia da, baina MUGI txartelaren kudeaketak hobetzeko aspektu batzuk ditu (salmenta puntuak...). Bestalde, hobetu egin behar da garraioaren online eta makina bidezko salmenta-sistema, baita online emandako informazioa ere.**. Bisitariek helmugari buruzko irudi negatiboa jasotzen dute.
- **Zarautzek herriarekin eta zarauztarrekin uztartuko den turismoa nahi du**, udalerriko kulturaz eta bizimoduaz interesatuko dena eta zerbait aportatzeko aukera izango duena.
- **Zarauztarrak Zarautz markaren enbaxadore** izatea bultzatu nahi da. Zarauztarrek turismoaren inguruko datuak ezagutzea komeni da.
- **Teknologia berrien erabilera garatzeko momentua** iritsi da (adimen artifiziala, besteak beste).

ESKU009d9fbf-1fea-4957-8320-89cbd6fdb05d

1.3.1 Lan-saioak

Zarauzko Udala
Behin betiko Onespena / Aprobación definitva
Data / Fecha 2025 OTS 27
Organoa / Órgano: Udalbatzarra / Pleno
Idazkaritza / Secretaría

MURKIL ETA ZUREKIN ELKARTEEKIN

Jarraian, planaren lehen fasea landu ondoren, 2024ko irailaren 4an, Zarautzen, Murkil eta Zurekin elkarteekin egindako lan-saioetan landutako gai nagusiak aurkezten ditugu:

Bi elkarteek komentatzen dute herrian masifikazio-pertzepzioa dagoela, baina beren negozioetan ez dutela hori nabaritzen, abuztuan ondo lan egiten dutela argudiatzen dute, baina uztailean azken urteetan gehiago kostatzen ari zaiela.

Udalarekin eta beste eragile batzuekin komunikatzeko bideak ireki behar direla adierazi dute, udalerriarentzat eta bisitarientzat interesgarriak diren ekimenak gauzatu ahal izateko. Egia da bi elkarteei desengainua eta nekea sumatzen zaiela Zarauzko Udalarekin duten harremanari dagokionez. Batzuetan lankidetza-bideak irekitzen saiatu direla eta ez dela jarraipenik egin argudiatu dute. Abandonu-sentimendua. Beraz, kasu honetan lehentasuna da elkarlanean aritzea eta bi elkarteek Udalarekin duten harremana sendotzea.

Bisitariak Zarautzera etortzeko arrazoiei dagokienez, ondorioa berdina da bi elkarteentzat: hondartza eta natura. Gastronomia ere arrazoi aipagarria izan da.

ESKU009d9fbf-1fea-4957-8320-89cbd6fdb05d

1.3.1 Lan-saioak

Zarauzko Udala
Behin betiko Onespena / Aprobación definitva
Data / Fecha 2025 OTS 27
Organoa / Órgano: Udalbatzarra / Pleno
Idazkaritza / Secretaría

Interesgarria iruditzen zaie eskaintza gastronomikoaren eta tokiko merkataritzaren aniztasuna bereiztearen eta balioestearen aldeko apustua egitea, Udaletik bi gai hauek garatzea erraztu beharko litzateke.

Frantzia nabarmentzen da jatorri interesgarri gisa. Bestalde, surflariak tokiko kulturaz interesatzen eta herrian erosten eta kontsumitzen duten heinean intereseko bezeroak dira. Holandako pertsona gehiagok bisitatzen dutela uste da. Bestalde, turismo-informatzaile gisa duten funtzioa nabarmentzen dute; horregatik, funtsezkoa iruditzen zaie gaiari buruzko material espezifikoa izatea eta ekimenen berri izatea.

.

Turismo-erabilerako etxebizitza pribatuen problematikari buruz dagoen pertzepzioaren jakitun dira, eta premiaz landu beharreko gaia dela uste dute, bai sektoreari bai tokiko biztanleei eragiten dielako.

Amaitzeko, aldaketa eta kalitate handiagoko turismorako eta familien presentziarako joera berresten dute, hori guztia familia-turismoaren segmentuaren alde egindako apustuari esker.

.

ESKU009d9fbf-1fea-4957-8320-89cbd6fdb05d

Zarauzko Udala
Behin betiko Onespena / Aprobación definitva
Data / Fecha 2025 OTS 27
Organoa / Órgano: Udalbatzarra / Pleno
Idazkaritza / Secretaría

ESKU009d9fbf-1fea-4957-8320-89cbd6fdb05d

UDALETXEKO TEKNIKARIEKIN

Jarraian, planaren lehen fasea aurkeztu ondoren, 2024ko urriaren 2an, Zarautzen, Zarauzko Udaleko 9 teknikarirekin egindako lan-saioan landutako gai nagusiak aurkezten ditugu:

Turismoari buruzko pertzeptzioari dagokionez, **ERNE egoteko momentua** dela uste da. Oraindik ez da uste kalteak oso nabarmenak direnik baina ebaluazio bat egiteko une egokia dela uste da, hainbat neurri ezartzea komeni den ala ez erabakitzeko.

Ingurumenari dagokionez adibidez, pandemia garaiak Biotopoan izan zuen eragin positiboa aipatu da, eta, horretaz aparte, **karga turistikoa**ri buruzko alerta ere aipatu da. Ildo horretan, uste da gaur egun **herriko gune jakin batzuk bakarrik aurki daitezkeela masifikatuta**, eta horietan zabor kopurua, zarata eta abar handitzen direla. Eremu zehatz horietan ahalegin handiagoa egitea proposatzen da. Gainera, egoiliarrek sentitzen dute **bizi-kalitatea eta lasaitasuna (bisitarientzat ere erakargarriak direnak)** galtzen dituztela opor-garaietan .

Neurri edo erabaki batzuek ekar dezaketen **kontraesana** azpimarratzen da, hala nola **aparkaleku-kopurua** handitzea ingurumenaren ikuspegitik **aparkalekuak murriztearen eta garraio publikoa sustatzearen aldeko ikuspegia** indartzen den bitartean. Eta hori da, hain zuzen ere, hobekuntza-puntuetako bat. Izan ere, **taxi-zerbitzuan, trenen eta autobusen maiztasunean eta txartelak online erosteko aukeretan bete gabeko beharrak** antzematen dira. Era berean, erakunde publikoen inplikazio eza salatzen da, enpresa pribatuen esku uzten baita (adibidez, kanpinera garraio publikoan iristea).

Zarautzko Udala
Behin betiko Onespena / Aprobación definitva
Data / Fecha 2025 OTS 27
Organoa / Órgano: Udalbatzarra / Pleno
Idazkaritza / Secretaría

1.3.1 Lan-saioak

Zarautzek bisitarientzat dituen baliabide erakargarrienei dagokienez, batez ere **hondartza, natura, gastronomia**... direla diote. Bestalde, ekitaldi jakin batzuen antolaketan **prebentzio-lana** egitea komeni dela azpimarratzen da (alkoholaren salmenta, adibidez), eta **euskararen erabileran sektorean dauden zailtasunak** nabarmentzen dira. Sektoreak duen pertzepzio positiboa errealitatearekin bat ez datorrela uste da, eta gai hori oraindik egiteke dagoen lan-puntua dela.

Gure **kultura eta nortasuna**ri buruz orokorrean hitz eginez, pertsona batzuek uste dute egoiliarrentzat babestu eta mantendu beharreko zerbait dela. Beste batzuek, aldiz, uste dute kulturen elkartrukea zerbait aberasgarria izango litzatekeela eta, askotan, aberastasun ekonomikoa aipatzen bada ere, herria ez dela kulturalki aberasten ari.

Ekonomiari dagokionez, turismoak eragin onuragarria duela ulertzen da, eta indargune gisa azpimarratzen da **gazteei udan lan egiteko eta sektorean euskara eta euskal kultura mantentzeko ematen zaien aukera**, baina **sektoreko lan-baldintza txarrez eta eskulan faltaz** ohartarazten da.

Gainera, **ostalaritzako eta ostatuetako prezioen igoera**z ohartarazi da, eta bisitari askorentzat galga izan daitekeela uste da, edo Zarautz eros-ahalmen handiko pertsonentzako helmuga turistiko gisa posizionatu dezakeela.

Klimari dagokionez, ΛMIΛren mehatxuetan (bisitariekin egindako beste azterlan batzuekin alderatuta) Zarautz eta Euskadi oro har bisitatzeko freno bat bada ere, uste da gero eta motibazio handiagoa izan daitekeela **giro freskoa** bilatzen duten pertsonentzat.

ESKU0090d9fbf-1fea-4957-8320-89cbd6fdb05d

1.3.1 Lan-saioak

Zarauzko Udala
Behin betiko Onespena / Aprobación definitva
Data / Fecha 2025 OTS 27
Organoa / Órgano: Udalbatzarra / Pleno
Idazkaritza / Secretaría

Ekitaldien antolaketa eztabaidatu beharreko gai garrantzitsua izan da, **oso positibotzat jotzen baita herriko zenbait auzotan ekitaldi jakin batzuk antolatzea (erromeriak, etab.),** baina, aldiz, beste ekitaldi batzuk puntu jakin batzuetan antolatzeak (malekoiko kontzertuak, etab.) lehenengoen onurak oztopatzen dituela uste da. Onartzen da Turismok beti gauzak bisitarientzat antolatzen dituen sentsazioa egon dela (egoiliarrentzat antolatu beharrean), nahiz eta horrela izan ez.

Ondorio orokor gisa, esan daiteke **teknikariek aitortu eta eskertu egiten dutela Turismo Departamentua egiten ari den lankidetza-lana, eta, zehazki, familia-turismoarekin egiten ari dena**, onuragarritzat jotzen baitute familiak eta egoiliarrak elkartzea.

ESKU009d9fbf-1fea-4957-8320-89cbd6fdb05d

Zarauzko Udala
Behin betiko Onespena / Aprobación definitva
Data / Fecha 2025 OTS 27
Organoa / Órgano: Udalbatzarra / Pleno
Idazkaritza / Secretaría

ESKU009d9fbf-1fea-4957-8320-89cbd6fdb05d

ALDERDI POLITIKOEKIN

Jarraian, planaren lehen fasea aurkeztu ondoren, 2024ko urriaren 8an, Zarautzen hiru alderdi politiko nagusiekin bilerak egin ziren, gaur egungo egoeraren inguruan haien ikuspuntua ezagutzeko eta etorkizuneko gakoen inguruan hitz egiteko.

Alderdien artean badaude amankomunak diren ikuspegi batzuk; **hondartzaren inguruan** adibidez bai uste da **surfak leku asko hartzen duela** eta udan bereziki leku gutxi geratzen dela. Uda-garaiari dagokionez, aipatu da ez dela turisten sustapen aktiboa egiteko garaia.

Garraio publikoaren aldeko apustua ere argia da alderdi ezberdinen artean, eta hori garatzen jarraitzearen aldeko apustua egiten dute. **Aparkalekuen gaia lantzen jarraitzea** ere aipatzen da, baita aparkaleku-aukeren komunikazioa ere.

Familia-turismoari dagokionez target egoki bezala ikusten da eta aurrera begira **MICE turismoa indartzearen alde** egitea ere proposatzen da.

EH Bilduk **apartamentu-blokeak eta kale mailako lokalak apartamentu bihurtzearen inguruan** adierazi du **beste erabilera batzuk sustatzearen aldeko apustua** egingo lukeela. Horretaz gain, haien ustez, uda-garaian ekitaldi eta ospakizun gehiegi daudela adierazi dute.

1.3.2 Online Galdetegiak

Zarauzko Udala
Behin betiko Onespena / Aprobación definitva
Data / Fecha 2025 OTS 27
Organoa / Órgano: Udalbatzarra / Pleno
Idazkaritza / Secretaría

HERRITARRAK: (31 erantzun online eta 7 erantzun presentzial)

Zergatik etortzen da jendea Zarautzera?

- Hondartza, Surfa
- Ingurune naturala, lasaia, familiarra, atsegina...
- Klima
- Arguiñano
- Kokapena

Eragin positibo nagusienak

- Kontsumoa
- Lanpostuak
- Herritarrentzako onurak (zerbitzuak hobetzea...)
- Aniztasuna, herri giroa

Pertsona gehienek **“handitzat”** edo **“oso handitzat”** jotzen dute Zarauzko turismoaren eragina ekonomian.

Eragin negatibo nagusienak

- Prezioak. Etxebizitzen eta alokairuen garestitzea
- Masifikazioa: trafikoa, aparkalekuak, zaborra, zarata... Segurtasun eza
- Lanpostu prekarioak
- Nortasuna galtzea

Herritarren erdiak uste du bisitarien eragina **"negatiboa”** edo **“oso negatiboa"** dela.

Baliabideak hobetzearen beharra

- Garbiketa berdindu neguan eta udan
- Surf-guneak arautzea eta naturaguneak babestea
- Aparkalekuak handitzea, errepideak eta hiri-mugikortasuna hobetzea
- Tasa turistiko bat ezartzea
- Etxebizitza-eskaintza hobetzea
- Ostalaritzaren erregulazioa
- Bizikletentzako azpiegitura hobetzea
- Herritarrei bideratutako **kultur** programak, euskararen sustapena

Euskararen erabilerari dagokionez, ez da ahalegin nabarmenik ikusten.

ESKU009d9fbf-1fea-4957-8320-89cbd6fdb05d

Zarauzko Udala
Behin betiko Onespena / Aprobación definitva
Data / Fecha 2025 OTS 27
Organoa / Órgano: Udalbatzarra / Pleno
Idazkaritza / Secretaría

1.3.2 Online Galdetegiak

SEKTOREA: (31 erantzun online)

Bisitarien ekarpen positibo nagusiak

Ekarpen ekonomikoa eta gastu zuzena

Tokiko merkataritza eta ostalaritza sustatzea

Eskualdeko garapen ekonomikoan laguntzea, enplegua sortzea

Kultur aniztasuna sustatzea, herriari bizia ematea

Alderdi negatibo nagusienak

Bizikidetza arautu beharra

Zaborra, zarata

Masifikazioa, trafikoa, aparkalekuak, zerbitzu publikoen gaineko presioa

Prezioen igoera

Eragin negatiboa euskal kulturan

Erakargarritasun nagusienak

Hondartza
Mendia, ingurune naturala

Jatetxeak, produktu lokala
Kalitatezko dendak eta produktuak

Euskal kultura

Kokapena, konexioak

Klima
Lasaitasuna eta segurtasuna
Aisialdirako aukerak

Bisitatzeko oztopo nagusienak

- Aparkatzeko tokirik ez, garraio publikoa
- Kalitatezko hotelen eta hotel-plaza egokien eskasia.
- Hondakinen kudeaketarekin arazoak
- Beste destino batzuekiko lehia
- Prezio altuak:
- Masifikazioa eta saturazioa
- Hondartzako eremu espezifikoetan pilaketa
- Ostalaritza-zerbitzuen kalitatearen aldakortasuna
- Baldintza klimatikoak

- Zarauzko turismoaren bilakaerari buruzko pertzepzioa azken 4 urteetan nagusiki **“neutrala”** edo **“positiboa”** izan dela ikus daiteke.
- Gehiengoak uste du turismoak Zarautzen inpaktu ekonomiko **handia edo oso handia** duela.
- **Zarauzko sektore turistikoan egiten den euskararen erabilera**ri buruzko erantzun gehienak (% 48,4) **positiboak** dira.

ESKU009d9fbf-1fea-4957-8320-89cbd6fdb05d

1.3.2 Online Galdetegiak

Zarauzko Udala
Behin betiko Onespena / Aprobación definitva
Data / Fecha 2025 OTS 27
Organoa / Órgano: Udalbatzarra / Pleno
Idazkaritza / Secretaría

ESKU0090d9fbf-1fea-4957-8320-89cbd6fdb05d

SEKTOREAK:

Uste duzu beharrezkoa dela Zarauzko baliabideren bat aldatzea (hondartza, aparkalekuak, errepideak, garbiketak, mugikortasuna, segurtasuna, informazio bideak...)?

Gehienqoak **"Beharrezkoa"** edo **"Oso beharrezkoa"** dela dio.



Zeintzuk?

- **Aparkalekuak handitzeko premiazko beharra** nabarmentzen da. Aparkalekua erraztea eta merkatzea. Lur azpiko aparkalekuak sortzeko iradokizuna, lur gaineko plazarik eza arintzeko.
- **Garbiketak:** txakur-kakak jasotzen ez dituztenei isunak jartzeko beharra eta hondakinen kudeaketa hobetzea, bereziki txangoetatik etorri eta zaborra uzten dutenentzat. Ziurtatu edukiontziak ez daudela gainezka.
- Gizalegearen aurkako jardueren aurrean erantzuteko azkartasuna hobetzea eta **Poliziaren presentzia areagotzea segurtasuna hobetzeko.**
- Ordutegiak errespetatzen ez dituzten **elkarte gastronomikoen jarduerak arautzea eta kontrolatzea**.
- Zarautz barruko **mugikortasun-azpiegitura hobetzea.**
- **Gaueko garraio publikoa:** Garraio publikoaren zerbitzua zabaltzea gauez.
- **Seinaleak hobetzea**, batez ere autobideko ordainlekuaren irteeran, Bilbotik etorrita.
- **Kultura-eskaintza areagotzea eta dibertsifikatzea.**
- Surfarekin zerikusirik ez duten **kirol-jarduerak sustatzea**, hala nola tenisa eta padela (pistak hobetzea).
- Tenis pistak: **Tenis pistak hobetzea,** gaur egun egoera txarrean daudelako eta ez direlako nahikoak.
- **Hotelen eskaintza handitzea** turista gehiago hartzeko.
- Prezioak: Etxebizitza turistikoen eta aparkalekuen **prezio altuak kontrolatzea.**
- Hondartzaren kotazioa: **Hondartzako espazioak hobeto kudeatzea** surflari eta bainularientzat.

1.3.2 Online Galdetegiak

Zarauzko Udala
Behin betiko Onespena / Aprobación definitva
Data / Fecha 2025 OTS 27
Organoa / Órgano: Udalbatzarra / Pleno
Idazkaritza / Secretaría

SEKTOREAK:

Zein izan daiteke Zarautzerako turismo-eredu egokia?

- **Turismo Iraunkorra,** ingurumena errespetatzen duen turismoa, helmuga aurkitu baino hobeto uzten duena.
- Kalitatezko Turismoa, **erosketa-maila ertain/altuko turistak erakartzera** bideratuta.
- **Masifikazioa saihestea** eta kantitatearen gainetik **kalitatearen aldeko apustua** egitea.
- Tokiko saltoki, jatetxe eta enpresei onura ekonomikoak ekarriko dizkien turismoa sustatzea.
- **Familia-, kirol- eta lasaitasun-turismoa sustatzea**.
- Kirola, ibilaldiak, natura, kultura eta gastronomia ardatz dituen turismoa.
- **Tokiko kultura** errespetatzen eta integratzen duen turismoa.
- Arautu gabeko **pisu turistikoen ugaritzea kontrolatzea**.
- **Neguko hilabeteetan jardueren eskaintza** handitzea, eta ez udan bakarrik.
- Batzuek aipatzen dute **Donostiaren eredua erreferentzia** izan litekeela.
- Egungo ikuspegiaren antzekoa mantentzea iradokitzen da, baina **turismo-saturazioa kontrolatuz**.

ESKU009d9fbf-1fea-4957-8320-89cbd6fdb05d

1.3.2 Online Galdetegiak

Zarauzko Udala
Behin betiko Onespena / Aprobación definitva
Data / Fecha 2025 OTS 27
Organoa / Órgano: Udalbatzarra / Pleno
Idazkaritza / Secretaría

UDALETXEKO TEKNIKARIAK: (6 erantzun)

Erakargarri nagusienak

- Hondartza
- Natura eta paisaia
- Surfa
- Gastronomia
- Ekitaldiak eta kultura
- Paseo eta inguru laua

Zarauzko turismo sektorearen alderdi positiboak

- Aniztasuna eta merkataritza txikiari laguntza
- Jarduera ekonomikoa
- Kultura eta ohiturak uztartzea

Zarauzko turismo sektorean hobetu beharreko alderdiak

- Alkoholarekin lotutako turismoa, Udako masifikazioa
- Etxe turistikoen gorakada eta etxebizitzaren prezioen igoera.
- Aparkalekuen arazoa
- Bertako herritarrei zuzendutako espazioak

Turismoaren kudeaketan azken urteotan egindako hobekuntzak

- Zarauztartu programa
- Udan, kanpineko bisitariak askoz lasaiagoak direla nabarmentzen da.
- Alojamenduen kudeaketa eta kontrola hobetu da.

- Turismo jasangarria **aplikatu beharko litzatekeela uste dutenak: % 50**
- **Aplikatzea ezinezkoa dela** edo ez dutela uste diotenak: **% 33,33**
- **Zalantza** edo konplexutasunak adierazten dituztenak: **% 16.67**

ESKU009d9fbf-1fea-4957-8320-89cbd6fdb05d

Zarauzko Udala
Behin betiko Onespena / Aprobación definitva
Data / Fecha 2025 OTS 27
Organoa / Órgano: Udalbatzarra / Pleno
Idazkaritza / Secretaría

1.3.2 Online Galdetegiak

UDALETXEKO TEKNIKARIAK

Zein proposamen daukazu Zarauzko turismoaren inguruan?

- Azken urteotan **egindako aurrerapenari eutsi** behar zaiola, ildo positiboak jarraituz.
- **Alkoholarekin lotutako ekintzak murriztea**, turismo osasuntsuagoa eta inklusiboagoa lortzeko.
- Etxe turistikoen kontrola
- Herritarrentzat **aparkalekua erraztu eta prezioak orokorrean jaitsi** behar direla proposatzen da.
- **Alojamendu turistikoak arautu eta murriztu** behar direla iradokitzen da, etxebizitzak bertako herritarrei bideratzeko.
- **Turista kopuru handiegia murriztea** eta hotel, apartamentu eta gainerako ostatu turistiko gehiago ez eraikitzea edo baimentzea proposatzen da.
- **Turismoaren gaineko zerga bat sortu** behar da

Eta sektore turistikoko eragileentzat?

- Eragileek **onartu behar dute** Zarautz euskalduna, jasangarria, adeitsua, familiakoa eta inklusiboa dela eta hori **bultzatu behar dute**.
- **Begirada inklusiboa**: Turismo sektorean funtsezkoa da begirada inklusiboa txertatzea, kalitatezko enplegua eta ingurumenarekiko errespetua sustatzeko.
- **Euskara gehiago bultzatu** eta eskaintzetan erabiltzea proposatzen da, kulturaren parte gisa integratuz.
- Turismoaren kudeaketan **mugak jarri** behar direla iradokitzen da, agian **gehiegizko turismoaren aurrean**.

ESKU009d9fbf-1fea-4957-8320-89cbd6fdb05d

1.3.3 Hondartzako informazio puntua

Zarauzko Udala
Behin betiko Onespena / Aprobación definitva
Data / Fecha 2025 OTS 27
Organoa / Órgano: Udalbatzarra / Pleno
Idazkaritza / Secretaría

BISITARIAK: (95 erantzun)

Zarautz aukeratzearen arrazoiak

Euskadi eta haren kosta ezagutzeagatik

Senide, lagun edo ezagun baten gomendioagatik

Surfarengatik

Hondartza eta klimarengatik

Donejakue bideagatik

Donostiatik/Bilbotik gertu gelditzen delako

Asko gustatzeagatik

Senide, lagun edo ezagun baten gomendioz

Interneten eta Google Maps-en bidez

Gida eta informazio turistikoen bitartez (hoteletan eta turismo bulegotan emandako gomendioak)

Arguiñanoren bitartez

Donejakue bidearen bitartez

Surfaren bitartez

Kasualitatez topatu dute

- **% 53rentzat lehen aldia** da Zarautzen, eta gainerakoek (% 47) egonaldia errepikatzen dute.
- **% 82 Zarautzera berriro itzuliko da.** "Ezetz" erantzun dutenen artean, ez liratekeela itzuliko dagoeneko bisitatu dituzten helmugak errepikatzea gustatzen ez zaielako zehaztu dute.

ESKU0090d9fbf-1fea-4957-8320-89cbd6fdb05d

1.3.3 Hondartzako informazio puntua

Zarauzko Udala
Behin betiko Onespena / Aprobación definitva
Data / Fecha 2025 OTS 27
Organoa / Órgano: Udalbatzarra / Pleno
Idazkaritza / Secretaría

BISITARIAK:

Zer hobetu daiteke Zarautzen?

- % 45ek **aparkalekuak hobetzea** eskatzen du. Zaila egiten zaie aparkatzea, ordaintzeko sistema ez da erraza, aparkatzea dohainik izatea eskatzen dute...).
- Gauzak uzteko (maletak, poltsak...) **takillak edo kontsignak** (hondartzaren ondoan).
- **Ostatu hobeak** peregrinoentzat, oso eskaintza urria dagoela diote eta azkar betetzen dela.
- Hondartzak **"dog friendly"** izatea
- **Prezioak** (garesti samar dena) eta jatetxe batzuen prezio eta eskaintzaren desoreka.
- Bizikletarekin **ibilbideak** egiteko informazio gehiago eta horien seinalizazioa.

Jatorria:

- Gehienak **Espainiako bisitariak (% 77)** dira: Madril, Toledo, Katalunia eta Zaragoza nabarmentzen direlarik.
- Kanpotarren artean: AEBtik eta Frantziatik datoz gehiengoak.

ESKU0090d9fbf-1fea-4957-8320-89cbd6fdb05d

ZARAUZKO UDALA
Behin betiko Onespena / Aprobación definitva
Data / Fecha
2025 OTS 27
Organoa / Órgano: Udalbatzarra / Pleno
Idazkaritza / Secretaría

ESKU0090d9fbf-1fea-4957-8320-89cbd6fdb05d

AMIA

Zarauzko Udala
Behin betiko Onespena / Aprobación definitva
Data / Fecha 2025 OTS 27
Organoa / Órgano: Udalbatzarra / Pleno
Idazkaritza / Secretaría

INDARGUNEAK

BISITARIAK

- Zarautz erreferentziazko marka
- Arguiñanoren ospea, enbaxadore nagusienetako bat
- Agenda / programazio zabala
- Naturaz gozatzeko aukera urte osoan zehar, ibilbideak
- Hondartza: urte osoan zehar
- Posizionamendu kontsolidatua: familia-turismoa
- Eskualdea: nortasuna, kalitatea eta baliabide ugari

INDUSTRIA

- Turismo helmuga erakargarria
- Eskaintza zabala: kultur ekitaldiak, surfa, txakolina, alde zaharra, hondartza, Mollarri, museoak, ibilbideak...
- Turismo sektoreko lantalde profesionala
- Batezbesteko egonaldiaren, ADRaren, langile kopuruaren bilakaera positiboa
- Sektorearentzat turismoak eragin positiboa dauka herrian
- Gastronomia eta tokiko produktuen eskaintza

KOMUNITATEA

- Agenda zabala bertakoentzat pentsatuta
- Zarautz 2030: "Zarauztartasuna"
- Turismo Bulegoko erabiltzaileen % handia bertakoa da
- Herritar askok adierazten dute turismoak eragin ekonomiko positiboa duela herrian

INGURUNEA

- Herri zaindua, erosoa, laua
- Nortasuna, kultura: euskara, pintxoak, poteo-giroa, merkataritza, merkatua, azokak,...
- Euskara: % 73,45 euskal hiztuna
- Mugikortasuna hobetzen doa: geltoki berriak, aparkaleku berria...

ESKU009d9fbf-1fea-4957-8320-89cbd6fdb05d

Zarauzko Udala
Behin betiko Onespena / Aprobación definitva
Data / Fecha 2025 OTS 27
Organoa / Órgano: Udalbatzarra / Pleno
Idazkaritza / Secretaría

AHULEZIAK

BISITARIAK

- Urtarokotasun handia
- Masifikazio pertzepzioaren arriskua herriko hainbat lekutan edo baliabidetan

INDUSTRIA

- Zarauzko turismoaren sarea ahuldu egin da
- Erabilera anitzeko aretoaren beharra
- Hondartzaren kudeaketa: surfa
- Erabilera turistikoko etxebizitzen araudi falta
- Sektorearen iritzia hainbat gairi lotuta. Ahuleziak:
  - Aparkaleku falta, garbiketa, seinaleak, kultura-eskaintza, tenis-pistak, garraio publikoaren falta gauez, prezioak, hotel-plazen kopurua...
- Tasa turistikoa ezartzeko aurreikuspena

KOMUNITATEA

- Mugikortasunarekin lotutako posizionamendua ez da ona: aparkalekuak, garraioa...
- Herritaren bizi-kalitatea zaintzeko beharra.
- Orekaren beharra bisitarien eta herritarren elkarbizitzan
- Herritarren kezkak turismoari buruz:
  - Bisitarien eragina biztanlerian
  - Garbiketa maila ezberdina udan eta neguan
  - Surfaren araudia
  - Naturaguneen babesa
  - Mugikortasuna: aparkalekuak, trafiko arazoak...
  - Erabilera turistikoko etxebizitzen eskaintza
  - Ostalaritzaren erregulazio falta
  - Herritarrei zuzendutako programazio eskasa

INGURUNEA

- Garraio publikoarekin lotutako arazoak
- Alokairuko bizikleten erabilera

ESKU009d9fbf-1fea-4957-8320-89cbd6fdb05d

Zarauzko Udala
Behin betiko Onespena / Aprobación definitva
Data / Fecha 2025 OTS 27
Organoa / Órgano: Udalbatzarra / Pleno
Idazkaritza / Secretaría

AUKERAK

BISITARIAK

- Txangozaleak eta horien kudeaketaren optimizazioa
- Turismoaren garrantzia eta bilakaera positiboa bai Gipuzkoan baita Euskadin ere
- Euskadiren posizionamendua helmuga turistiko bezala
- Eskaintza gastronomikoa erakargarria inguruko beste helmuga batzuekin alderatuta (Kantabria, Asturias..)

INDUSTRIA

- Tokiko produktuaren balorazio positiboa, Km 0, Jatorrizko izendapenak...
- Euskal kostaldearen ospea eta posizionamendua
- Inguruko hainbat baliabideren posizionamendua: Kostaldeko Geoparkea, Balenciaga Museoa...
- Bidaiatzeko moduen aldaketa

KOMUNITATEA

- Turismo birsortzailearen aukerak:
  - Bertako komunitatearekiko loturaren garrantzia
  - Ingurumen eta iraunkortasunaren kontzeptuak
  - Hezkuntza eta kontzientziazioa
  - Baliabide naturalen erabilera zaindua
  - Berrikuntza eta sormena

INGURUNEA

- Eragin positiboaren lanketa (bertako ingurunean)
- Turismo iraunkorrari buruzko kontzientziazio progresiboa
- Euskara arloaren eta Turismo arloaren elkarlana

ESKU009d9fbf-1fea-4957-8320-89cbd6fdb05d

Zarauzko Udala
Behin betiko Onespena / Aprobación definitva
Data / Fecha 2025 OTS 27
Organoa / Órgano: Udalbatzarra / Pleno
Idazkaritza / Secretaría

MEHATXUAK

BISITARIAK

- Gertuko edo antzeko helmugen garapena / bilakaera berritzailea
- Beste helmuga batzuk: Kantabria, Asturias, Galizia, Ipar Euskal Herria
- Euskadira edo Gipuzkoara bidaiatzeko aspektu negatiboak (bisitarien esanetan): eguraldia, hezetasuna, prezio altuak.

INDUSTRIA

- Baliabide turistiko batzuen konpetentzia
- Kulturaren eskaintza egituratzeko eta komunikatzeko zailtasuna
- Turismo-erregulazioa
- Aplikatu beharreko araudiak ez ezagutzea

KOMUNITATEA

- Bertakoen ezinegona urteko egun jakin batzuetan (bisitari asko etortzen diren egunak/urtaroak)
- Turismoaren aurkako mugimenduak / mezuak

INGURUNEA

- Krisiak: ekonomikoa, klimatikoa
- Bertako baliabideen karga turistikorako gaitasuna
- Biodibertsitatea galtzeko arriskua
- Baliabide naturalak agortzeko arriskua
- Itsasoaren kutsadura

ESKU009d9fbf-1fea-4957-8320-89cbd6fdb05d

ZARAUZKO UDALA
Behin betiko Onespena / Aprobación definitva
Data / Fecha
2025 OTS 27
Organoa / Órgano: Udalbatzarra / Pleno
Idazkaritza / Secretaría

ESKU009d9fbf-1fea-4957-8320-89cbd6fdb05d

HAUSNARKETA ESTRATEGIKOA

Zarauzko Udala
Behin betiko Onespena / Aprobación definitva
Data / Fecha 2025 OTS 27
Organoa / Órgano: Udalbatzarra / Pleno
Idazkaritza / Secretaría

HELBURU ESTRATEGIKOAK

Hau da Plan honen helburu orokor eta estrategikoa:

Turismoa kudeatzeko estrategia adostuak finkatu, turismoa dinamizatu eta haren onurak herritarrengan integratzen lagundu, Zarauztarren eta bisitarien arteko harreman aberasgarria lortuz

Hauek dira, berriz, planean definitutako gainontzeko helburuak:

1. Zarautz bere komunitatearen **bizi-kalitatea** bermatzen duen eta bere **kultura eta nortasuna** kontserbatzearen eta balioestearen alde egiten duen udalerria izatea
2. **Goi-denboralditik kanpoko hilabeteetan turismo-jarduera dinamizatzea** eta aktibitate turistikoari bultzada bat ematea: **hondartzaz eta ekitaldiez urte osoan zehar gozatzea**.
3. **Bertakoen eta bisitarien arteko oreka mantentzeko** lan egiten jarraitzea
4. **Denontzat onurak ekarriko dituen turismoa sustatzea**: bisitarien ekarpen positiboa, baliabide naturalen eta turistikoen zaintza barne
5. **Online kanaletan Zarauzko presentzia areagotzea**
6. Turismo jasangarriaren alde lan egitea eta **sentsibilizazio-ekintzak egitea, ekonomia, gizartea/kultura eta ingurumena balioan jartzeko**.
7. **Hainbat araudiren jarraipena egin**: erabilera turistikoko etxebizitza pribatuak, apartamentu turistikoak, surfa eta hondartzaren erabilera...
8. Udaletik garatutako **Agintaldi Planarekin (2023-2027) lerrokatuta** lan egitea.

ESKU0090d9fbf-1fea-4957-8320-89cbd6fdb05d

Zarauzko Udala
Behin betiko Onespena / Aprobación definitva
Data / Fecha 2025 OTS 27
Organoa / Órgano: Udalbatzarra / Pleno
Idazkaritza / Secretaría

XEDE PUBLIKOA

Zarauzko eskaintza interesgarria da profil eta jatorri ezberdinen artean. Ondorengo orrialdetan definituko da perfil bakoitza.

PERFILAK

ZARAUZTARRAK

FAMILIAK HAURREKIN

SENIORRAK

BIKOTE GAZTEAK

NITXO JAKIN BATZUK:

Surfa, Ekoturismoa

JARDUERA PROFESIONALAK

MERKATU NAGUSIAK

2.MAILAKO MERKATUAK

ESKU009d9fbf-1fea-4957-8320-89cbd6fdb05d

Zarauzko Udala
Behin betiko Onespena / Aprobación definitva
Data / Fecha 2025 OTS 27
Organoa / Órgano: Udalbatzarra / Pleno
Idazkaritza / Secretaría

XEDE PUBLIKOA

Zarautzentzat interesgarriak izan daitezkeen bisitarien profilei dagokienez, gure eskaintzarekin egokitzen diren hainbat xede-publiko identifikatu dira :

0- Zarauztarrak:
Bertako pertsonak funtsezkoak dira. Izan ere, turismo bulegoak urte osoan zehar zerbitzua ematen die zarauztarrei (datu hori eskuragarri dago diagnostikoaren datu estatistikoen azterketan). Bestalde, azpimarratu behar da ekitaldien agenda zarauztarrentzat diseinatzen dela.

1- Familiak: publiko estrategikoa
Familia-turismoaren aldeko apustuarekin jarraitu. Gaur egun, Zarauzko eskaintza guztiz bat dator profil honek bidaiatzeko dituen motibazioekin. Bidaiatzeko garaian, familiek segurtasuna, erosotasuna, lasaitasuna, hondartza, natura eta abar balioztatzen dituzte opor-eremu berean. Eta hori da, hain zuzen ere, Zarautzek eskaintzen duena.

FAMILIAK HAURREKIN

2- Senior eta bikote gazteak:

Oporretan lasaitasuna bilatzen duten bisitarietan zentratuko gara baita ere. Kasu honetan, bikoteen targetaren zati batek eta seniorren beste zati batek osatzen dute bidaia-taldea. Bi xede-publiko horiek hainbat bidaia egiten dituzte urtean zehar esperientzia eta ezaugarri ezberdinak bilatuz. Hori dela eta, lasaitasuna, natura eta segurtasuna bilatzen dituzten heinean, Zarautz posizionatu nahi dugu erreferente gisa euren aukeren artean.

SENIORRAK

BIKOTE GAZTEAK

ESKU0090d9fbf-1fea-4957-8320-89cbd6fdb05d

Zarauzko Udala
Behin betiko Onespena / Aprobación definitva
Data / Fecha 2025 OTS 27
Organoa / Órgano: Udalbatzarra / Pleno
Idazkaritza / Secretaría

XEDE PUBLIKOA

3- Nitxo espezifikoak:

Zarauzko eskaintza eta baliabideak kontuan hartuta, bi nitxo espezifiko identifikatu dira: kirol-turismoarena, surfari aipamen berezia eginez, eta, bestalde, naturarena (ekoturismoa). Turismo mota hauek ingurumena errespetatzen dute eta jasangarriak dira.

Surfaren kasuan, interesgarritzat hartzen dira nazioarteko profesionalak eta kirol honekin lotutako eskaintza osagarriak bilatzen dituztenak: surfaren merkataritza espezializatua, taulen industria...

Ekoturismoari dagokienez, interesgarria litzateke lasaitasuna, ibilaldiak eta natura bilatzen duten gertuko bisitariak erakartzen jarraitzea, eta pixkanaka irismena zabaltzea.

Jarduera profesionalen segmentuaren kasuan, Zarautzek ekitaldi profesional ertain eta txikiak hartzeko aukera dauka. Lehen fasean, proposamena da inguruko enpresekin lan egiten hastea.

JARDUERA PROFESIONALAK

NITXO JAKIN BATZUK:

(Surfa, Ekoturismoa)

ESKU009d9fbf-1fea-4957-8320-89cbd6fdb05d

HAUSNARKETA ESTRATEGIKOA

Zarauzko Udala
Behin betiko Onespena / Aprobación definitva
Data / Fecha 2025 OTS 27
Organoa / Órgano: Udalbatzarra / Pleno
Idazkaritza / Secretaría

MISIOA

Zarauztarrei eta bisitariei kalitatezko herria eskaintzea, itsasoaz eta naturaz inguratuta, euskal kultura eta haien arteko bizikidetza sustatzen duena

IKUSPEGIA

Erreferentziazko helmuga bat izatea, bai **kudeaketa turistikoaren** balioengatik, bai **eskaintza handiagatik** (batez ere familientzat). Eta hori guztia, **herria eta ondare kulturala eta naturala zainduz**, **zarauztarrei eta bisitariei esperientzia positibo** bat eskainiz, eta **ekonomia, gizarte, kultura eta ingurumen arloan eredu izan** eta jasangarritasuna sustatuz.

BALOREAK

Zarauztartasuna

Bizikidetza

Armonia

Benetakotasuna

Bikaintasuna

Eredugarritasuna

ESKU0090d9fbf-1fea-4957-8320-89cbd6fdb05d

Zarautzko Udala
Behin betiko Onespena / Aprobación definitva
Data / Fecha 2025 OTS 27
Organoa / Órgano: Udalbatzarra / Pleno
Idazkaritza / Secretaría

KOKAPENA

Aurreko diapositiban azaldutako baliabide eta ikuspegi ezberdinak kontuan hartuta, zera esan dezakegu: Zarautz herri ezin hobea da lasaitasuna, erosotasuna eta eskaintza zabala bilatzen duten bisitarientzat.

ZARAUTZ UDALERRIA

ZAINDUA | SEGURUA | EROSOA

- ✓ Autoaren erabilera ez da beharrezkoa
- ✓ Garraio publikoa (inguruak, Donostia, Bilbo, Gasteiz...)
- ✓ Kokapen bikaina.
- ✓ Herri laua

BALIABIDE ETA JARDUERAK

NATURALAK | BEREZKOAK | KULTURALAK

- ✓ Hondartza urbanoa
- ✓ Ingurune berdeak
- ✓ Mendi-bideak
- ✓ Surfa
- ✓ Parkeak
- ✓ Merkatua
- ✓ Komertzioa
- ✓ Sukaldaritza eta ostalaritza
- ✓ Nortasuna eta berezko kultura.
- ✓ ZARAUZTARTASUNA

Eskaintza honek interesgarri bihurtzen du Zarautz profil ezberdinen artean: :

ZARAUZTARRAK

FAMILIAK | BIKOTE GAZTEAK| SENIORRAK | NITXO JAKIN BATZUK (SURFA, EKOTURISMOA....)

Aurrerago definituko da profil bakoitza.

ESKU0090d9fbf-1fea-4957-8320-89cbd6fdb05d

Zarautzko Udala
Behin betiko Onespena / Aprobación definitva
Data / Fecha 2025 OTS 27
Organoa / Órgano: Udalbatzarra / Pleno
Idazkaritza / Secretaría

KOKAPENA

Zarautz **helmuga erreferente** eta **bikaina** da bere **kokapenagatik**, **turismoaren kudeaketagatik eta** antolatzen diren **ekitaldi ugariengatik**. Aldi beran, **herri zaindua, segurua, jasangarria eta erosoa** da.

Azpimarratzekoa da goi-mailako eskaintza (besteak beste, **herri-giroa**, bertako **produktuak** eta **baliabide naturalak**) eta **hondartzan eta itsasoan eta berdeguneetan kirola** egiteko dauden aukera ugariak.

Eskaintza hori guztia egoki uztartzen da zarauztarren ongizatearekin, euskal kulturaren dibulgazioarekin eta inklusibitatearekin.

ESKU0090d9fbf-1fea-4957-8320-89cbd6fdb05d

ESKU0090d9fbf-1fea-4957-8320-89cbd6fdb05d

ZARAUZKO UDALA
Behin betiko Onespena / Aprobación definitva
Data / Fecha
2025 OTS 27
Organoa / Órgano: Udalbatzarra / Pleno
Idazkaritza / Secretaría

EKINTZA PLANA

Zarauzko Udala
Behin betiko Onespena / Aprobación definitva
Data / Fecha 2025 OTS 27
Organoa / Órgano: Udalbatzarra / Pleno
Idazkaritza / Secretaría



ESKU0090d9fbf-1fea-4957-8320-89cbd6fdb05d

VICE EREDUA

Barne eta kanpo analisi sakon baten ostean, eta diagnostikoa eguneratu ondoren, **2018ko Zarauzko Plan Estrategikoan planteatutako turismo-ereduarekin jarraitzea proposatzen da; VICE ereduarekin**. Egia da, une honetan, Zarautzen Komunitatearen ardatzari lehentasuna eman nahi zaiola, eta, horretarako, **2023-2027 Agintaldi Plana ere hartu da kontuan.**

Ondorengo taulan jasotzen ditugu eredu honen alderdi esanguratsuenak:

Publikoak	Helburuak eta funtzioak
Bertako komunitatea: **Zarauztarrak** Bertako Turismo industria Ingurunea Bisitariak	Harrera eman, gogobetetzea eman eta inplikatu Errentagarritasuna eta oparotasuna sortu Ongizatea eman Giroa eta ingurunea zaindu eta hobetu

Laburbilduz, guztizko **interakzio-prozesu bat sortzea** espero da onurak sortu ditzan definitutako **publiko ezberdinen artean** (komunitatea/zarauztarrak, industria, bisitariak...). Aurrera **eramango diren erabaki eta ekimen guztiek erantzun positiboak eman** beharko dizkiete Zarauzko estrategian definitutako helburuei. **Prozesu honetan guztian, berebiziko garrantzia dauka agente guztiek** (administrazio publikoak barne) **beren ardurak onartzeak**.

Zarauzko Udala
Behin betiko Onespena / Aprobación definitva
Data / Fecha 2025 OTS 27
Organoa / Órgano: Udalbatzarra / Pleno
Idazkaritza / Secretaría



ESKU0090d9fbf-1fea-4957-8320-89cbd6fdb05d

VICE EREDUAREN GAKOAK

- ✓ **Erlazio iraunkorrak** landu agente ezberdinekin.
- ✓ **Elkarrizketa eta partaidetza** zarauztarrekin ondorengo gaien inguruan:
  - ✓ Fluxu turistikoen kudeaketa.
  - ✓ Aparkalekuei buruzko pertzepzioa
  - ✓ Erabilera Turistikoko Etxebizitza pribatuen araudia
  - ✓ Mugikortasuna eta garraio publikoa.
  - ✓ Hondartzaren kudeaketa eta erabilera.
  - ✓ Zarata, ordutegiak...
  - ✓ Komunikazioaren hobekuntza.
- ✓ **Aliantzak eta kooperazioa** sektore publiko/pribatuan:
  - ✓ Marketin planen eta hobekuntza-ekimenen garapen partekatua.
  - ✓ Formakuntza eta kalitatea.
  - ✓ Helmuga turistikoaren komunikazioaren hobekuntza.
  - ✓ Bertako ekintzen babesa eta bertako edozein ekimenen sustapena.

EKINTZA PLANA

Zarauzko Udala
Behin betiko Onespena / Aprobación definitva
Data / Fecha 2025 OTS 27
Organoa / Órgano: Udalbatzarra / Pleno
Idazkaritza / Secretaría



ESKU0090d9fbf-1fea-4957-8320-89cbd6fdb05d

EKINTZA PLANA

GARAPEN JASANGARRIRAKO HELBURUAK

Ekintza-plana definitzeko, agintaldi-planean zehaztutako GJHak hartu dira kontuan.

Lan duina eta hazkunde ekonomikoa

Gure ustez, helburu hori Zarauzko Turismoko Plan Estrategikoaren oinarrietako bat da. Izan ere, guztiz lotuta dago lanaren eta ekonomiaren arloekin. Lan-baldintzak hobetzea du helburu, baita lan-produktibitatea handitzea eta langabezia-tasa murriztea ere, batez ere gazteentzat eta prestakuntzarik gabeko adinekoentzat.

Hala, gure ustez, Zarauzko turismo-sektoreari ere funtsezko helburu horiek aplikagarriak zaizkio, udalerriko turismo-eskaintza indartzeko eta aberastasuna sortzeko, bai eta lan-baldintza onak eta sektorearen profesionalizazioa lantzen jarraitzeko ere.

Izan ere, turismoaren industrian, ezin dira pertsonen bizi-baldintzak hobetu hazkunde ekonomiko jasangarriari eta inklusiboari heldu gabe, enplegu produktiborik gabe eta, era berean, baldintza duinetan.

Zarauzko Udala
Behin betiko Onespena / Aprobación definitva
Data / Fecha 2025 OTS 27
Organoa / Órgano: Udalbatzarra / Pleno
Idazkaritza / Secretaría



ESKU0090d9fbf-1fea-4957-8320-89cbd6fdb05d

GARAPEN JASANGARRIRAKO HELBURUAK

Helburu hori barne produktu gordinaren hazkundeari lotuta dago, besteak beste. Bi urtean behin, aukera dugu datu zehatzagoak aztertuta, turismoak Gipuzkoako barne produktu gordinari egiten dion ekarpena eta herrietan duen garrantzia neurtzeko.

Era berean, helburu horrek produktibitate-ekonomikoaren maila handiagoak lortzea sustatzen du, dibertsifikazioaren, modernizazio-teknologikoaren eta berrikuntzaren bidez. Horiek dira turismo-sektoreko enpresekin ere landu beharreko funtsezko arloak.

Bestalde, garapenera bideratutako politikak sustatzen ditu. Hau da, produkzio-jarduerak, lanpostu duinen sorrera, ekintzailetza, sormena eta berrikuntza bultzatzen ditu, baita Zarauzko ekosistema turistikoan hain garrantzitsuak diren mikroenpresen eta enpresa txiki eta ertainen formalizazioa eta hazkundea ere.

Ingurumena zaintzeari eta sektorea osatzen duten enpresen erantzukizunari dagokienez, garrantzitsua da, halaber, baliabideen ekoizpena eta kontsumo eraginkorra hobetzen jarraitzea, eta hazkunde ekonomikoa eta ingurumenaren degradazioa bereiztea.

Azkenik, GJH hau funtsezkoa da turismo jasangarriari aipamen zuzena egiten diolako. Era berean, gure ustez, Zarauzko turismo-sektorearen zeregina da politikak lantzea eta praktikan jartzea, lanpostuak sortuko dituen eta tokiko kultura eta produktuak balorean jarriko dituen turismo jasangarria sustatzeko.

Zarauzko Udala
Behin betiko Onespena / Aprobación definitva
Data / Fecha 2025 OTS 27
Organoa / Órgano: Udalbatzarra / Pleno
Idazkaritza / Secretaría

GARAPEN JASANGARRIRAKO HELE



ESKU0090d9fbf-1fea-4957-8320-89cbd6fdb05d

9 INDUSTRIA, BERRIKUNTZA ETA AZPIEGITURA

Azpiegitura erresilienteak eraikitzea, industrializazio inklusibo eta jasangarria bultzatzea, eta berrikuntza sustatzea

Eremu baten garapen-maila neurtzen duen faktoreetako bat azpiegituren garapena eta industrializazio-maila da. Izan ere, azpiegitura fidagarriak, iraunkorrak eta kalitatezkoak garatzea suspertze ekonomikorako, bizi-kalitaterako eta enplegua sortzeko pizgarria izan behar da. Bestalde, lurraldea egituratzeko, gizarte-kohesiorako eta aukera-berdintasunerako bermea ere bada.

Gure ustez, Zarauzko turismo-estrategiak, bere mailan, azpiegitura fidagarrien, iraunkorren, erresilienteen eta kalitatezkoen garapena sustatu behar du. Horrela, garapen ekonomikoari eta giza-ongizateari laguntzeko aukera dauka. Izan ere, arreta berezia jarri behar du guztientzako eskuragarritasun ekitatiboan.

Era berean, sektoreko enpresei dagokienez, garrantzitsua izango da azpiegiturak modernizatzea eta industria birmoldatzea iraunkorrak izan daitezen. Baliabideak eraginkortasun handiagoz erabiltzea ezinbestekoa da; esaterako, teknologia eta prozesu industrial garbiak eta arrazionalak sustatzea ingurumen-aldetik.

Eta proiektu osoan zehar turismo iraunkorra zeharkako ardatz gisa bermatze aldera, 8. eta 9. helburuak kasu bakoitzean honela osatu daitezke: bisitarien esperientzia hobeto ezagutzeko eta hobetzeko eta sektore pribatuaren profesionalizaziorako eta zarauztarren bizi-kalitatearen garrantzia kontuan hartzeko

Zarauzko Udala
Behin betiko Onespena / Aprobación definitva
Data / Fecha 2025 OTS 27
Organoa / Órgano: Udalbatzarra / Pleno
Idazkaritza / Secretaría

GARAPEN JASANGARRIRAKO HELE



ESKU0090d9fbf-1fea-4957-8320-89cbd6fdb05d

Udalerri inklusiboak, seguruak, erresilienteak eta iraunkorrak izan daitezen lortzea

Udalerri inklusiboak urbanizazioaren eta garapenaren arteko indartze-lotura bat sortzen saiatzen dira, ekitatean, justizian eta bakean oinarritutako giza asentamenduak eratzen, inor atzean ez uzteko printzipio globalaren arabera.

Helburu hori garrantzitsutzat jotzen dugu, zarauztarren ongizatearekin duen lotura estuagatik. Are gehiago, Zarauzko Plan Estrategikoan, lehentasunezko zeregina izan behar da.

Helburu horrek, besteak beste, ondorengo proiektuak sustatzen ditu:

- Garraio-sistema seguru, publiko, zabal, eskuragarri, irisgarri eta iraunkorraren sustapena eta bide-segurtasunaren hobekuntza.
- Kultura eta natura-ondarea babesteko ahaleginak areagotu
- Hirietako hondakinak eta kutsadura, hirietako biztanle bakoitzeko ingurumen-inpaktu negatiboaren murrizketa, baita airearen kalitateari eta udal-hondakinen eta bestelakoen kudeaketari arreta berezia.
- Berdeguneen eta espazio publikoen erabilera segurua: berdegune eta espazio publiko seguru, inklusibo eta irisgarrien erabilera unibertsala eskaintzea, bereziki emakume eta haurrentzat, adineko pertsonentzat eta desgaitasuna duten pertsonentzat.

Zarauzko Udala
Behin betiko Onespena / Aprobación definitva
Data / Fecha 2025 OTS 27
Organoa / Órgano: Udalbatzarra / Pleno
Idazkaritza / Secretaría



ESKU0090d9fbf-1fea-4957-8320-89cbd6fdb05d

EKINTZA PLANA

GARAPEN JASANGARRIRAKO HELBURUAK

12 EKOIZPEN ETA KONTSUMO ARDURATSUAK

Kontsumo eta ekoizpen-modalitate jasangarriak bermatzea

Helburua da kudeaketa iraunkorra eta baliabide naturalen erabilera eraginkorra sustatzea, hondakinen sorrera murriztea eta elikagaiak alferrik ez galtzea, eta produktu kimikoen kudeaketa ekologikoki arrazionala sustatzea. Era berean, enpresetan praktika jasangarriak inplementatzea eta naturarekin harmonian bizitza-estiloei buruzko informazio unibertsala eskuratzea sustatu nahi du.

Agendako GJH zeharkakoenen artean dago. Aldi berean, helmuga garatuenetan garrantzitsuenetako bat da, ekonomia, ekoizpen eta kontsumo-ereduetatik jasangarritasunerako trantsizioa lortu nahi baitu.

Helburu hori turismo-sektoreari aplika dakioke. Enpresek praktika jasangarriak abian jar ditzakete eta txostenak aurkezteko garaian jasangarritasunari buruzko informazioa sar dezakete. Informazio hori turismo jasangarriarekin lotuta dago: garapen jasangarrian dituzten ondorioak zaintzeko tresnak landu eta aplikatu, lanpostuak sortu eta tokiko kultura eta produktuak sustatuko dituen turismo jasangarria lortzeko.

Zarauzko Udala
Behin betiko Onespena / Aprobación definitva
Data / Fecha 2025 OTS 27
Organoa / Órgano: Udalbatzarra / Pleno
Idazkaritza / Secretaría



ESKU0090d9fbf-1fea-4957-8320-89cbd6fdb05d

GARAPEN JASANGARRIRAKO HELBURUAK

Genero berdintasuna

Genero-berdintasuna oinarrizko giza eskubidea izateaz gain, mundu baketsu, oparo eta jasangarria eraikitzeko funtsezko oinarrietako bat ere bada. Aurrerapen batzuk lortu dira azken hamarkadetan, baina mundua urrun dago 2030erako genero-berdintasuna lortzetik.

Genero-berdintasuna oinarrizko giza eskubidea da, bizi den herrialdea edozein dela ere. Genero-berdintasunean aurrera egitea funtsezkoa da gizarte osasuntsu bat sortzeko eremu guztietan, pobrezia murriztetik hasi eta haurren osasuna, hezkuntza, babesa eta ongizatea sustatzeraino.

Zarauzko turismoaren kudeaketara ekarrita, Turismo Departamentuak hain zuzen ere helburu hau du zehaztuta, besteak beste: datozen urteetan LGTBIQ+ kolektiboa kontuan hartzeko prestakuntza eta protokoloak aurrera eramatea.

.

Zarauzko Udala
Behin betiko Onespena / Aprobación definitva
Data / Fecha 2025 OTS 27
Organoa / Órgano: Udalbatzarra / Pleno
Idazkaritza / Secretaría



ESKU0090d9fbf-1fea-4957-8320-89cbd6fdb05d

EKINTZA PLANA

10: Desberdintasunak murriztea

Diru-sarrera, sexu, adina, desgaitasun, sexu-orientazio, arraza, klase, etnia, erlijio eta aukera-desberdintasunaren ondoriozko desberdintasunak mundu osoan dirau. Desberdintasunak epe luzerako garapen sozial eta ekonomikoa mehatxatzen du, pobreziaren murrizketa geldiarazten du eta pertsonen gauzatze- eta autoestimu-zentzua suntsitzen du.

Gaurko munduan, denok gaude elkarrekin konektatuta. Arazoak eta erronkak, pobrezia, klima-aldaketa, migrazioak edo krisi ekonomikoak izan, ez dira inoiz herrialde edo eskualde batera mugatzen. Herrialde aberatsenetan ere miserian bizi diren komunitateak daude oraindik. Demokrazia zaharrenek arrazakeriari, homofobiari eta transfobiari aurre egiten jarraitzen dute, baita intolerantzia erlijiosoari ere. Munduko desberdintasunak guztioi eragiten digu, nor garen edo gure jatorria edozein dela ere.

Zarauzko Turismo Departamentuak urratsak eman nahi ditu dibertsitate funtzionala duten pertsonen integraziorako, eta horixe da, hain zuzen ere, datozen urteetarako ekintza-ildoetako bat.

Zarauzko Udala
Behin betiko Onespena / Aprobación definitva
Data / Fecha 2025 OTS 27
Organoa / Órgano: Udalbatzarra / Pleno
Idazkaritza / Secretaría



ESKU0090d9fbf-1fea-4957-8320-89cbd6fdb05d

GARAPEN JASANGARRIRAKO HELBURUAK

17 HELBURUAK LORTZEKO ALIANTZA

17: Ezarpen-baliabideak indartzea, eta Garapen Jasangarrirako Munduko Ituna biziberritzea:

GJH horren garrantzia azpimarratu nahi dugu, funtsezkoa baita gainerako GJHak lortzeko, eta, turismoaren esparruan, garapen jasangarrirako politiken koherentzia hobetzearekin lotu daitekelako.

Zarautzko Udala
Behin betiko Onespena / Aprobación definitva
Data / Fecha
2025 OTS 27
Organoa / Órgano: Udalbatzarra / Pleno
Idazkaritza / Secretaría



ESKU0090d9fbf-1fea-4957-8320-89cbd6fdb05d

GARAPEN JASANGARRIRAKO HELBURUAK

18: Hizkuntza eta kultur aniztasuna:

Zarautzen kasuan helburu bat gehitu nahi dugu, pertsonen desberdintasunei balioa ematen dien gizarte integratzailearen oinarri baita. Kasu honetan hizkuntza eta kultur aniztasunari dagokionez, udaleko arlo guztietan euskara lan-hizkuntza izateko neurriak hartu dira, eragileekin arlo guztietan euskararen erabilera neurtzea eta euskalduntzea sustatzen ari gara, herritarrek udalarekin harremanak euskaraz izateko normalizazio-ekintzak garatu dira eta herritarrei eta bereziki beste herrialdetatik iritsitako herritarrei euskalduntze eta alfabetatze zerbitzuak eskaintzen zaizkie.

Gainera, Kulturaren Plan Estrategikoa egitea eta euskara eta zarauztartasuna bisitariei erakutsi eta balorean jartzen dituzten ekimenak egitea aurreikusten da.

Zarauzko Udala
Behin betiko Onespena / Aprobación definitva
Data / Fecha 2025 OTS 27
Organoa / Órgano: Udalbatzarra / Pleno
Idazkaritza / Secretaría

EKINTZA PLANA

VICE ereduaren oinarriak ondorengo arloetan oinarritzea proposatzen da:

- ZARAUZTARRAK
- INDUSTRIA
- INGURUNEA ETA KULTURA
- BISITARIAK

Ondoren, gauzatu beharreko helburu eta ekintza zehatzak zehaztuko dira, eta eragile bakoitzarekin lotuko dugu. Kontuan hartu beharra dago ekintza batzuk bati baino gehiagori dagozkiola.

Bisitarien arloari dagokion ekintza-plana marketin-plan batean zehaztuko da.

ESKU0090d9fbf-1fea-4957-8320-89cbd6fdb05d

Zarauzko Udala
Behin betiko Onespena / Aprobación definitva
Data / Fecha 2025 OTS 27
Organoa / Órgano: Udalbatzarra / Pleno
Idazkaritza / Secretaría

ZARAUZTARRAK

HELBURU ESTRATEGIKOAK

1. Zarauzko jarduera turistikoari buruzko komunikazioa indartu, eta **zarauztarrei** ekimen, proiektu eta abarri buruzko informazio zabala eman.

2. Zarauztarrak sektoreak udalerrian daukan garrantziaz sentsibilizatu eta **kontzientziatu** (ekarpen ekonomikoa, sortutako lanpostuak...)

3. Zarauztarren eta bisitarien arteko oreka bilatu eta **bizikidetza sustatu**

4. Zarauzko elkarte eta eragile ezberdinak integratu kontsultetan edo komunikazio-kanaletan.

5. Zarauztarren eta Udalaren kezkei arreta jarri: hondartzaren erabilera, etxebizitzen gaia, aparkalekuak, garbiketa...

6. Zarauzko erabilera turistikoko etxebizitza pribatuen eta apartamentu turistikoen gaiei jarraipena egin.

ESKU009d9fbf-1fea-4957-8320-89cbd6fdb05d

Zarauzko Udala
Behin betiko Onespena / Aprobación definitva
Data / Fecha 2025 OTS 27
Organoa / Órgano: Udalbatzarra / Pleno
Idazkaritza / Secretaría

ZARAUZTARRAK

Eguneratze-lan honetan ardatz hau lehenestea proposatzen da, diagnostikoan argi geratzen baita zarauztarrak direla gakoa Zarauzko jarduera turistikoaren kudeaketa eta gobernantza optimorako.
Horretarako, landu beharreko funtsezko alderdiak antzeman dira. Izan ere, zarauztarraren eta bisitariaren arteko bizikidetza zailtzen duten hainbat aspektu pertzepzioetan oinarritzen dira, komunikazioaren eta gobernantzaren esparruan landu behar direnak. Gainera, azpimarratu beharra dago **bertako pertsonak funtsezkoak direla herri baten garapen optimorako** .

Lanketa egiteko garaian, kontuan hartu behar da **ardatz hau** dela **erronka nagusia**. Lortutako emaitzek, seguraski epe luzera, oinarriak ezarriko dituzte Zarautz helmuga turistiko sendotua eta jasangarria izan dadin ekonomia, gizarte eta ingurumen perspektibatik.

Gainera, nabarmendu behar da balioan jartzen diren **baliabideak, produktuak eta ekitaldiak diseinatzen direla zarauztartasunaren eta nortasunaren** kontserbazioa ardatz bezala hartuta.

Hau azaltzeko 2018an egindako eskema eguneratua berreskuratu da.

ESKU0090d9fbf-1fea-4957-8320-89cbd6fdb05d

Zarauzko Udala
Behin betiko Onespena / Aprobación definitva
Data / Fecha
2025 OTS 27
Organoa / Órgano: Udalbatzarra / Pleno
Idazkaritza / Secretaría

ZARAUZTARRAK



Iturria: Four Tourism

ESKU0090d9fbf-1fea-4957-8320-89cbd6fdb05d

Zarauzko Udala
Behin betiko Onespena / Aprobación definitva
Data / Fecha 2025 OTS 27
Organoa / Órgano: Udalbatzarra / Pleno
Idazkaritza / Secretaría

ZARAUZTARRAK

Z.1. Kontzientziazioa eta sentsibilizazioa

- Z.1.1 **Komunikazio-estrategia** bat sortu **zarauztarrei turismoaren inguruan egindako lana helarazteko**, turismoak gizartean dituen onurak ulertarazteko, eta abar.
- Z.1.2 **Zarauztarrei** (adibidez, Zarauzko familiei) **zuzendutako produktu eta ekintzak** sortu, **herritarren eta bisitarien arteko bizikidetza sustatzeko**
- Z.1.3 **Zarauztarrak** udalerriko **preskriptore onenak** izatea lortu
- Z.1.4 **Pertsonen ongizatea ikuspegi integral batetik** kontuan hartu Turismo Departamentuak abian jartzen dituen egitasmo guztietan
- Z 1.5 **Zarauztarrei eta kanpotik iritsitako pertsonei informazio-zerbitzuak eskaintzen** jarraitu (euskarriak, web-orrialdea, aurrez aurreko arreta)
- Z 1.6 Egiten diren **ekintza eta komunikazio** guztietan **inklusio-irizpideak, dibertsitate funtzionala, genero-ikuspegia eta hizkuntza ez-sexista** landu eta txertatu

ESKU0090d9fbf-1fea-4957-8320-89cbd6fdb05d

Zarauzko Udala
Behin betiko Onespena / Aprobación definitva
Data / Fecha 2025 OTS 27
Organoa / Órgano: Udalbatzarra / Pleno
Idazkaritza / Secretaría

Z.2. Erabilera turistikoko etxebizitza pribatuak

- Z.2.1 **Urtero etxebizitza turistikoei buruzko jarraipen** zehatza egin
- Z.2.2 Etxebizitza turistikoen inguruan **Agintaldi Planean zehazten diren ekintzetan (3.3) laguntza** eman

Z.3 Zarauztartasuna

- Z.3.1 **Zarauzko Agintaldi Planarekin (2023-2027) bat egin** eta turismo-eremutik indartu daitezkeen ekintza guztiak landu
- Z.3.2 **Mugikortasunari, kulturari, iraunkortasunari, euskarari, parekidetasunari eta abarri buruz egindako planak babestu** eta kontuan hartu. Gainerako departamentuekin elkarlana sustatu.

ESKU0090d9fbf-1fea-4957-8320-89cbd6fdb05d

Zarauzko Udala
Behin betiko Onespena / Aprobación definitva
Data / Fecha 2025 OTS 27
Organoa / Órgano: Udalbatzarra / Pleno
Idazkaritza / Secretaría

INDUSTRIA

HELBURU ESTRATEGIKOAK

1. Bertako **jarduera turistikoaren beharrei eta ekimenei erantzuna eman** eta bultzatu.

2. Sektore turistikoarekin eta merkataritzarekin **komunikazio-**bideak **indartu** eta **lan egiteko kanal berriak ireki**

3. Turismo eta Merkataritza sektoreak indartu, hobetzen jarraitu dezaten, eta **bertako produktuak eta dendak balioan jartzeko ekimenak bultzatu.**

4. Udaleko hainbat departamenturekin elkarlanean, **estrategia bat definitu** zarauztarrei zuzendutako **ekitaldien** inguruan. Aldi berean, programazio horri esker, bisitariek gozatu dezakete eta **urtarokotasuna landu daiteke.**

5. Zarautz **Surfaren industrian erreferente izaten jarraitzeko elkarlan-lerroak sustatu**

6. Zarauzko **jarduera turistikoan euskararen erabilera sustatzen jarraitu** eta euskara balioan jartzeko ekimenetan parte hartu.

ESKU009d9fbf-1fea-4957-8320-89cbd6fdb05d

Zarauzko Udala
Behin betiko Onespena / Aprobación definitva
Data / Fecha 2025 OTS 27
Organoa / Órgano: Udalbatzarra / Pleno
Idazkaritza / Secretaría

INDUSTRIA

Jarraian, ardatz honetan landuko diren lan-lerroak azaltzen dira:

I.1 TURISMO SEKTOREA

Turismo-sektoreaz ari garenean, Zarauzko ostatu, ostalaritza, merkataritza, zerbitzu turistiko eta kulturalez ari gara. Sare horri esker, udalerriak **kalitatezko eskaintza du, bai bertakoentzat, bai bisitarientzat.** Hori dela eta, lan-lerro honi lehentasuna ematea erabaki da: **sektorearen lehiakortasuna eta gobernantza lantzea da helburu nagusia eta, bide batez, posizionamendu eta nortasun propioa lortzea.**

I.2 EKITALDIAK

Zarautz **erreferentea** da **bere ekitaldien programazioari esker**. Funtsezkoa da **zarauztarrei zuzendutako ekitaldiak antolatzeari lehentasuna ematea**.

ESKU009d9fbf-1fea-4957-8320-89cbd6fdb05d

Zarauzko Udala
Behin betiko Onespena / Aprobación definitva
Data / Fecha 2025 OTS 27
Organoa / Órgano: Udalbatzarra / Pleno
Idazkaritza / Secretaría

INDUSTRIA

I.3. SURFA

Surfa industria bat da udalerrian: eskolak, ikastaroak, arropa-dendak, taulen alokairua... Kirol honekin erlazionatutako edozer gauza aurki dezakegu Zarautzen. Bestalde, **surfa elementu bereizgarri bat** izan daiteke profesionalizatzen bada, eta era egoki batean kudeatzen jarraitzen bada.

I.4. EUSKARA

Diagnostikoaren arabera, **jarduera turistikoan euskararen erabilera landu eta hobetu beharreko elementu bat da**. **Euskara Zarauzko nortasunaren eta bere izateko arrazoiaren parte** da. Jarduera turistikoan lan-ildo batzuk eskaintzea proposatzen da erabilera hobetzeko eta balorean jartzeko. Azpimarratu beharra dago **Euskara zeharkako ardatz gisa** lantzea ezinbestekoa dela, zarauztartasunaren zati inplizitua baita.

I.5 PRODUKTU LOKALA

Bertako produktua **Zarauzko merkatuari eta gastronomiari lotuta dago**. Egia da Zarautzek ez duela produktu izarrik, baina bertako produktuen eta produktu gastronomikoen eskaintza zabala da. Izan ere, merkatua bertako produktuen erakusleiho garrantzitsua da eta **lehen sektoreari balioa ematen dio**.

ESKU0090d9fbf-1fea-4957-8320-89cbd6fdb05d

ZARAUZKO UDALA
Behin betiko Onespena / Aprobación definitva
Data / Fecha 2025 OTS 27
Organoa / Órgano: Udalbatzarra / Pleno
Idazkaritza / Secretaría

INDUSTRIA

I.1. Turismo sektorea

- I.1.1 **Turismo eta merkataritza** sektoreetan **kolaborazio-sare** bat **bultzatu eta indartu**.
- I.1.2 **Zarauzko turismo industriaren harremanak indartzen** jarraitu eta **elkarlana jorratu**
- I.1.3 **Turismo eta ostalaritza sektoreari zuzendutako formakuntzetan lagundu** (adibidez: euskara-ikastaroak, jendearentzako arreta zerbitzuak, parekidetasuna, sexu-indarkeriaren aurkako protokoloak, ikastaro espezifikoak...)
- I.1.4 Gure estrategiarekin bat datozen **sektoreko proposamenak landu herriko elkarte edo eragile ezberdinekin**
- I.1.5 Gaur egungo **joera turistikoen inguruan** informazio-**jardunaldiak antolatu**.
- I.1.6 **MICE / jardunaldi profesionalak erakartzeko aukerak** aztertu.

I.2. Ekitaldiak

- I.2.1 **Ekitaldiak eta jarduera profesionalak antolatzeko areto bat** sortzea bultzatu (edukiera handiagokoa...), jardunaldiak, mintegiak, formakuntzak, etab. egiteko.
- I.2.2 **Zarauztartasuna eta herri-identitatea** balorean jarri antolatzen diren **ekitaldi guztietan**
- I.2.3 **Erronka Garbia eta Ekitaldi Jasangarriaren zigilua** lortzeko lan egin.

ESKU0090d9fbf-1fea-4957-8320-89cbd6fdb05d

Zarauzko Udala
Behin betiko Onespena / Aprobación definitva
Data / Fecha 2025 OTS 27
Organoa / Órgano: Udalbatzarra / Pleno
Idazkaritza / Secretaría

INDUSTRIA

I.3. Surfa

- I.3.1. **Surfaren industriak** Zarautzen duen eragina neurtzeko **lan-lerro bat bultzatu**
- I.3.2. Hainbat departamenturekin elkarlanean **hondartzan surfari eskainitako espazioari buruzko hausnarketan parte hartu**.

I.4. Euskara

- I.4.1. **Euskara lan-hizkuntza izaten jarraitzeko ekintzak** bideratu sektorearekin elkarlanean
- I.4.2. Arlo guztietan **euskararen erabilera neurtzen lagundu** eragileekin elkarlanean
- I.4.3. **Ongi Etorri Euskararen Herrira egitasmoa**: enpresen parte hartzea indartu

I.5. Produktu lokala

- I.5.1. **Merkatu plaza balioan jarri** eta bertako ekoizleen produktuak ezagutzera eman

ESKU009d9fbf-1fea-4957-8320-89cbd6fdb05d

Zarauzko Udala
Behin betiko Onespena / Aprobación definitva
Data / Fecha 2025 OTS 27
Organoa / Órgano: Udalbatzarra / Pleno
Idazkaritza / Secretaría

INGURUNE ETA KULTURA

HELBURU ESTRATEGIKOAK

1. **Inklusioa zeharka landu**, Zarautz ongizate-leku segurua izan dadin zarauztarrentzat era bisitari guztientzat.

2. **Zarautzek duen berezko kultura eta nortasuna babestu eta transmititu**, bisitariek kultura eta nortasun horietan ezagutu eta baloratu dezaten.

3. **Zarautz helmuga irisgarria izatea bultzatu**,: udalerriaz edonork disfrutatu ahal izateko.

4. **Jasangarritasuna sustatuko duten ekintzak bultzatu**, bai zarauztarrentzat baita bisitarientzat ere.

5. **Aparkalekuari buruzko informazioa eta komunikazioa** indartu herrian bertan eta bisitariei begira

6. **Zarauzko seinalizazioa hobetu**: baliabide nagusiak, erdialdea, hondartza etab.

ESKU009d9fbf-1fea-4957-8320-89cbd6fdb05d

Zarauzko Udala
Behin betiko Onespena / Aprobación definitva
Data / Fecha 2025 OTS 27
Organoa / Órgano: Udalbatzarra / Pleno
Idazkaritza / Secretaría

INGURUNE ETA KULTURA

Ardatz hau **definitzen da** ondorengo kontzeptuak indartzeko: **Zarauzko berezko nortasuna, jasangarritasuna** (bere hiru alderdietan: ekonomikoa, soziala eta ingurumenekoa), **mugikortasuna eta inklusioa**.

Zarauzko baliabide erakargarrienei eusteko, **bizitzeko eta bisitatzeko leku gisa, garrantzitsua da lasaitasuna**, bizi-kalitatea, erosotasuna, natura... eta halako **ezaugarriei garrantzia ematea**. Naturari dagokionez, **hondartzaren babesari lotutako ingurumen-ardatzaren garrantzia nabarmendu** behar da.

Irisgarritasun eta inklusio kontzeptuak oso **lotuta daude,** pertsona guztiek udalerriaz gozatzeko aukera izan dezaten.

Besteak beste, zarauztarren izaerak, udalerriko giroak eta antolatutako kultur jarduerek osatzen dute Zarauzko nortasuna.

Diagnostikoaren indargune gisa identifikatu da nortasuna, eta berriz ere nabarmendu behar da bere garrantzia.



ESKU0090d9fbf-1fea-4957-8320-89cbd6fdb05d

Zarauzko Udala
Behin betiko Onespena / Aprobación definitva
Data / Fecha 2025 OTS 27
Organoa / Órgano: Udalbatzarra / Pleno
Idazkaritza / Secretaría

INGURUNE ETA KULTURA

IK.1. Zarauztartasuna

- IK 1.1 **Bisitaria udalerriko bizi-estiloaren eta ohituren parte egiten jarraitu,** eta horri guztiari balioa ematen jarraitu (dibertsitatea, parekidetasuna, elkarbizitza, euskara, kultura...): **"ZARAUZTARTASUNA"**
- IK 1.2 **Euskararen presentzia indartu sektore turistikoan eta merkataritzan**
- IK 1.3 **Euskara balioan** jarri, Zarauzko **elementu bereizgarri bezala**

IK.2 Iraunkortasuna

- IK 2.1 **Ingurunearen kontserbaziorako ekintzak sustatu.**
- IK 2.2 **Iraunkortasuna zeharka lantzen jarraitu** Turismo Departamentuaren ekintza guztietan
- IK 2.3 **Zarauzko jasangarritasunaren inguruan bisitariari** eskaintzen zaion **informazioa areagotu**

ESKU0090d9fbf-1fea-4957-8320-89cbd6fdb05d

Zarauzko Udala
Behin betiko Onespena / Aprobación definitva
Data / Fecha 2025 OTS 27
Organoa / Órgano: Udalbatzarra / Pleno
Idazkaritza / Secretaría

INGURUNE ETA KULTURA

IK.3. Mugikortasuna

- IK 3.1 Zarautzek duen **aparkaleku eskaintza ezagutarazi eta ikusarazi**.
- IK 3.2 **Garraio publikoaren erabileraren** eta garraio-modu desberdinen arteko **bizikidetza sustatu**
- IK 3.3 **TAO sistemaren** inguruko komunikazioa hobetzen lagundu (bisitarientzat eta zarauztarrentzat)
- IK 3.4 **Garraio publikoaren** etengabeko hobekuntzari **buruzko ekimenetan lagundu, komunikatu...**.

I.K.4 Inklusioa

- IK 4.1 Interes turistikoa duten eta denentzako **irisgarriak diren ibilbideak sustatu**.
- IK 4.2 **Turismo inklusiboaren promozioan parte hartu** (turismo irisgarriaren gida, adibidez).
- IK 4.3 **Komunikazio tresnetan inklusioa landuta** duten **enpresa pribatuak azpimarratu**.
- IK 4.4 **Enpresa pribatuak** parte hartzera animatu irisgarritasuna lantzeko prometan
- IK 4.5 **Behar bereziak dituzten pertsonen** inklusioa sustatu arlo ezberdinetan (lantokietan, ekitaldietan...)

ESKU0090d9fbf-1fea-4957-8320-89cbd6fdb05d

Zarautzko Udala
Behin betiko Onespena / Aprobación definitva
Data / Fecha 2025 OTS 27
Organoa / Órgano: Udalbatzarra / Pleno
Idazkaritza / Secretaría

BISITARIAK

Hurrengo ardatzean, bisitarien atala definitzen da. Kasu honetan, xede-publikoaren definizioa hausnarketa estrategikoan egin da.

Ardatz honetan ondorengo **ekintza-lerro hauek definitu dira**:

B.1 Produktua
B.2 Komunikazioa eta Promozioa
B.3 Lehiakortasuna
B.4 Euskara

Hurrengo orrialdeetan, lehenengo bi lan-ildoetan jarraitu beharreko estrategiak zehazten dira. Esan beharra dago ardatz hori oso landuta dagoela eta hemen sumatzen direla Zarautzek turismoaren arloan duen ibilbidea eta esperientzia.
Helmuga kontsolidatua da, eta ibilbide nabarmena du sektore turistikoan, bisitariari begira. Horregatik, ardatz horri eutsi behar zaio eta lanean jarraitu behar da **egungo eskaintza eta orain arte egindako ekimenak indartzeko**.
Aipatutako arlo horiek baliagarriak dira **lehiakortasunaren ikuspegitik** lan egiten jarraitzeko eta gaur egun Zarautzek helmuga gisa **eskaintzen duena hobetzeko**.

ESKU009d9fbf-1fea-4957-8320-89cbd6fdb05d

Zarautzko Udala
Behin betiko Onespena / Aprobación definitva
Data / Fecha 2025 OTS 27
Organoa / Órgano: Udalbatzarra / Pleno
Idazkaritza / Secretaría

BISITARIAK

XEDE-PUBLIKOA

Jarraian, hausnarketa estrategikoan definitutako **xede-publikoaren motibazioak** aztertuko dira:

FAMILIAK HAURREKIN

Kostaldean deskantsatu.
Kultura eta tradizioak ezagutu.
Ibilaldiak, irteerak... egin.
Segurtasuna, lasaitasuna, erosotasuna, zerbitzuak, sukaldaritza, parkeak eta aisialdia eta halako ezaugarriak

SENIORRAK

BIKOTE GAZTEAK

- Kostaldean deskantsatu.
- Kultura eta tradizioak ezagutu.
- Ibilaldiak, irteerak... egin.
- Lasaitasuna, erosotasuna, aisialdia eta halako atributuak.
- Bertako produktua eta merkataritza balioan jartzen dituzten egitasmoak / enpresak.

NITXO JAKIN BATZUK:

Surfa, Ekoturismoa

- Kirola egin
- Kirol-ekitaldietan parte hartu/ikusle bezala egon
- Aisialdia
- Ibilaldiak, irteerak... egin.
- Ekitaldiak

MICE SEGMENTUA

- Elkarlana indartu
- Motibazioa bultzatu
- Ezagutza partekatu
- Sormena sustatu
- Helmuga eta kultura berriak ezagutarazi

ESKU0009019f-1fea-4957-8320-89cbd6fdb05d

Zarauzko Udala
Behin betiko Onespena / Aprobación definitva
Data / Fecha 2025 OTS 27
Organoa / Órgano: Udalbatzarra / Pleno
Idazkaritza / Secretaría

BISITARIAK

XEDE-PUBLIKOA

Merkatu igorleei dagokienez, EUSTATeko sarrerei buruzko datuetan oinarritu gara:

- Bisitarien jatorria: lehen postuan daude **Kataluniatik, Frantziatik, Madrildik, Nafarrotik eta Euskal Autonomia Erkidegotik etorritakoak**, eta Frantziatik etorritakoen kopurua hazi egin da (+% 22 2022tik).

- Kataluniatik etorritakoen kopuruak ere gora egin du (+% 9). Baina Madrildik (-% 1,8) eta Euskaditik etorritako pertsonen kopuruak behera egin du (-% 5,4).

Halaber, interesgarria da datu horiek batezbesteko gastuari buruzko datuekin gurutzatzea. Horrela, **Herbehereak nabarmentzen dira eskualdean egindako guztizko gastuagatik**.

Hori guztia kontuan hartuta, ondorengo merkatuak lehenesten dira:

MERKATU NAGUSIAK

2.MAILAKO MERKATUAK



Iturria: Gipuzkoako Behatoki Turistikoa (EUSTAT)



Iturria: Gipuzkoako Behatoki Turistikoa (BBVA)

ESKU0090d9fbf-1fea-4957-8320-89cbd6fdb05d

Zarauzko Udala
Behin betiko Onespena / Aprobación definitva
Data / Fecha 2025 OTS 27
Organoa / Órgano: Udalbatzarra / Pleno
Idazkaritza / Secretaría

BISITARIAK

PRODUKTU TURISTIKOAK

PRODUKTU NAGUSIAK

Hondartza eta itsasoa

Natura turismoa

Euskal nortasuna eta euskara, bertako produktua eta merkataritza

Jarduera Profesionalak (ekitaldi ertain eta txikietan zentratuta)

NITXO PRODUKTUAK

Turismo aktiboa

Interes bereziko turismoa:

- Surfa
- Kirolak



AGENDA

ESKU009d9fbf-1fea-4957-8320-89cbd6fdb05d

Zarauzko Udala
Behin betiko Onespena / Aprobación definitva
Data / Fecha 2025 OTS 27
Organoa / Órgano: Udalbatzarra / Pleno
Idazkaritza / Secretaría

BISITARIAK

PROMOZIOA ETA KOMUNIKAZIOA

Sustapenari eta merkaturatzeari dagokienez, **urtarokotasun handiko hilabeteetan sustapen-ekintzarik ez egitea gomendatzen da**, eta ahalegin horiek urtean zehar egitea. Zarauzko Turismo Departamentuaren esku dauden sustapen eta komunikazio ekintzetarako honako kanal hauek erabili daitezke:

- Sare Sozialak
- Webgunea
- Liburuxkak
- Ekitaldiak
- Prentsaurrekoak eta prentsa-oharrak
- Ekintza puntualak Instagramer edo Influencerrekin
- Artikuluak eta prentsa (orokorrak eta MICE sektorean espezializatuak)
- Fam eta Press Trip-etan parte-hartu
- MICE sektoreari begira kanal espezializatu batzuk: agentziak, newsleterrak Zarautz eta inguruko udalerrien enpresei zuzenduta...

Estatuan eta nazioartean irismen handiagoa duten sustapen-ekintzetan, honako agente hauekin lan egitea edo lerrokatua egotea gomendatzen da: (irismen handienetik txikienera):

- Turismoaren Euskal Agentzia
- Destinos Euskadi Elkartea
- Gipuzkoako Foru Aldundia
- Urola Kosta

ESKU0090d9fbf-1fea-4957-8320-89cbd6fdb05d

Zarauzko Udala
Behin betiko Onespena / Aprobación definitva
Data / Fecha 2025 OTS 27
Organoa / Órgano: Udalbatzarra / Pleno
Idazkaritza / Secretaría

BISITARIAK

PROMOZIOA ETA KOMUNIKAZIOA

MERKATURAKETA BIDEAK	EKINTZA ARLOA
MAILA ESTRATEGIKOA	
Basque Tour	Munduaren gainontzekoa
Turismo Familiar	
1. MAILA	
Gipuzkoako Foru Aldundia / Diputación Foral de Gipuzkoa	
Urola Kostako Udal Elkartea	
Destinos Euskadi	

ESKU009d9fbf-1fea-4957-8320-89cbd6fdb05d

Zarauzko Udala
Behin betiko Onespena / Aprobación definitva
Data / Fecha 2025 OTS 27
Organoa / Órgano: Udalbatzarra / Pleno
Idazkaritza / Secretaría

BISITARIAK

B.1. Produktua

- B.1.1 Bisitariari **Zarautz bisitatzeko aukera ezberdinak** proposatu, **bidaiaren iraupenaren arabera**
- B.1.2 Interes turistikoa duten **ingurune eta kultura baliabideak eta proiektuak berreskuratzeko beharrak** identifikatzen jarraitu
- B.1.3 **Bisitariak erakartzeko aproposak izan daitezkeen nitxo-produktuak sustatu**: kirol-ekitaldiak, ekitaldi gastronomikoak, euskal kultura balioan jartzeko egitasmoak,..
- B.1.4 **Eskualdean estrategikoak diren egitasmoetan Zarauzko presentzia landu**.
- B.1.5 ***Zarautz Gozoa*** **ekimena landu**, bertako produktu gozoari balioa emateko.
- B.1.6 **Gastronomia**: proposamen berriak sustatu
- B.1.7 **Kirola**: Zarautz "entrenatzeko helmuga"

ESKU009d9fbf-1fea-4957-8320-89cbd6fdb05d

Zarauzko Udala
Behin betiko Onespena / Aprobación definitva
Data / Fecha 2025 OTS 27
Organoa / Órgano: Udalbatzarra / Pleno
Idazkaritza / Secretaría

BISITARIAK

B.2. Komunikazioa eta promozioa

- B.2.1 **Turismo-argudioa urtero eguneratzen jarraitu**, zehaztutako estrategiaren arabera
- B.2.2 **Komunikazio-tresnak Zarauzko posizionamenduari eta eskaintzaren egiturari egokitzen** jarraitu
- B.2.3 **Familia-turismoa lantzen** jarraitu
- B.2.4 **Parekidetasuna kontuan hartzen jarraitu komunikazio kanal guztietan.**
- B.2.5 **Komunikazio-ekintza bereziak gauzatu sarrera gutxiagoko hilabeteetan**
- B.2.6 **Weborriaren egituraren hausnarketa sendotu,** Zarauzko weborriaren atal nagusiak beste hizkuntza batzuetan definituz (ingelesa, frantsesa, gaztelania)
- B.2.7 **Target eta nitxo oso espezifikoei zuzendutako online kanpainak planteatu** merkatu jakin batzuetan, beti ere definitutako posizionamendu turistikoarekin bat eginez
- B.2.8 Kanpaina espezifikoak egin **Zarauzko** eta **eskualdeko komunikabideetan**
- B.2.9 **Press/Blog Trip** espezifikoak antolatu.

ESKU0090d9fbf-1fea-4957-8320-89cbd6fdb05d

Zarauzko Udala
Behin betiko Onespena / Aprobación definitva
Data / Fecha 2025 OTS 27
Organoa / Órgano: Udalbatzarra / Pleno
Idazkaritza / Secretaría

BISITARIAK

B.3. Lehiakortasuna

- B.3.1 Lehiakortasuneko zigiluei jarraipena eman kalitatea eta **bereizgarritasuna** bermatzen jarraitzeko (Queer Destination, Kode etikoa, turismo familiarra eta Kalitateko Q....) .
- B.3.2 Turismo d**atuak zehatz-mehatz biltzen jarraitu**: adierazleak, neurketak...
- B.3.3 **Datuak aztertu eta etekina atera** (sektoreari bidali, zarauztarrei bidalitako komunikazio-mezuetan txertatu...) Zarauzko bisitarien errealitatea eta portaera ezagutarazteko.
- B.3.4 **Gipuzkoako Foru Aldundiak edo Eusko Jaurlaritzako Turismoaren Euskal Agentziak** datuen eta **adimen turistikoaren** arloetan egiten dituzten **ekimen guztietan lankidetzan jarraitu**.
- B.3.5 **Inklusioari eta irisgarritasunari** buruzko **formakuntza** espezifikoak indartu.

B.4. Euskara

- B.4.1. **Euskarari buruzko komunikazioa landu eta indartu**
- B.4.2. **Ongi Etorri Euskararen Herrira** egitasmoaren berri eman eta parte hartzera gonbidatu
- B.4.3. **Euskara balorean jartzeko, bisitariei zuzendutako ekintzen antolaketa** sustatu

ESKU009d9fbf-1fea-4957-8320-89cbd6fdb05d

ZARAUZKO UDALA

Behin betiko Onespena / Aprobación definitva

Data / Fecha: 2025 OTS 27

Organoa / Órgano: Udalbatzarra / Pleno

Idazkaritza / Secretaría



GURA MARKETIN.
MARKETING & COMUNICACIÓN

ZARAUTZ TURISMOA

EKS | CSV: **ESKU009d9fbf-1fea-4957-8320-89cbd6fdb05d**

*Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: **https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07910***

*Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: **https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07910***